1998ko maiatzaren 22a, JARDUN ELKARTEA

# Berrigara

Bergarako astekaria



# Euskal jaia

## Zilarrezko ezteiak domekan

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# Txandakako Enpresa Injinerutza

IMH ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA

**Hasierako lanbide heziketa bukatu baduzu, edo beste ikasketa batzuk egin badituzu, eta injinerutza ikastea zurekin bat datorrela uste baduzu → Aukera hori eskaintzen dizugu!**

**Orain, Euskal Herrian ere ikasi eta lan egin, biak batera egin ditzakezu**

- 2. Lanbide Heziketa edo 3. Modulu ikasketak egin ondoren, goi mailako ikasketak
- Beste karreraren bat ikasi duenentzat injinerutza ikasketak
- 3 urte txandakako heziketa batean, enpresa eta IMHaren artean
- Lan kontratua lehen egunetik

**Informazioa:**

**Erreminta Makina Institutua**

San Roke Auzoa, 1 ☎ 943.744132
Elgoibar Faxa: 943.744153
e.mail: ingenieria@fmh.es

matrikula epea irekita

cesi aquitaine poitou-charentes



# Arrasate AED 15 urte

## @mets gaua

Monterron parkean
Maiatzak 23, Larunbata
Gaueko 10:00etatik aurrera

Arrasate Dj
NAUN (Donostia)
Imanol Dj
2KATE (Donostia)
Arrasate Dj
EKON (Arrasate)
Imanol Dj

Musika motak: Ambient, Junggle, House, Techno, Dub.....

Proiekzioak (Bartzelona)
Impaktes Visuals

## Amets eguna

Maiatzak 24, Igandea
Goizeko 10:30etatik aurrera

### Zaldibar gunea

10:30etatik aurrera Kale animazioa
- Zanpartzarrak • Kalejira trikitilariekin • Txaranga

12:00etan Aurkezpen ekitaldia
- Herrialde desberdinetako dantzak eta jaki dastaketa
- Bertsolariak

14:30etan Bazkari herrikoia trikitilariekin alaitua
18:00etatik aurrera ETZAKIT musika taldea

### Jokin zaitegi barruko gunea

17:00 etan IPARRALDEKO HERRI KIROLEN ikuskizuna

Partaideak: Lapazaran - Arrate eta Mugartegi- Gotzon Mugarza I

Probak:
- Lastoa jasotzea 6 metrotara
- Lastoa botatzea alturan
- Junguria
- Gurdia
- Trontza
- Aizkoran 2 korte 6 metrotako alturan
- Sakuak bizkarrean dituztela karrerak

18:30etatik aurrera SALTSA, MERENGE, TANGO, BALS,...
IKASTARO eta DANTZALDIA

Dantzariak: • Julio Lantigua • Natalio Maiztegi
. . .eta Jarraitzaileak

### Jokin zaitegi kanpoko gunea

11:00etatik aurrera TXIKITXOKOA egun osoan zehar
- Kars-ak
- Zezen mekanikoa
- Trentxoa
- Igel puzgarria
- Monky gaztelua
- Pelotadun etxetxoa
- Gaztelu animatua
- Amonamantangorri
- Eskulan txokoa
- Musika alaia
- Goxotxoko
- . . .

### Biteri gunea

13:30etan TRIKIMAILU EXPRES taldearen haur berbena
17:00etan Arrasateko NOMEN taldea
19:30etan LORELEI musika taldea

Ametsa Eraikiaz Doa
Arrasate Euskaldun Dezagun • Arrasate Komunikabideak • Ekin emakume taldea • Txatxilipurdi • Euskalan •

Ametsa Eraikiaz Doa



# Ikuskizuna

**Maite Mozos** / Irakaslea

Bazen behin oso urrun ez dagoen herrialde batean...

...eta Athletic-ek irabazi zuen eta Txapeldunen ligara iritsi zen; eta Realak irabazi zuen eta sailkapenean hirugarren postuan geratu zen; eta astebukaera batean telemandoa erregea izan zen; eta taldelagunak elkartzen ziren lekuetan pantailak gurtzen ziren; eta kaleetatik ez zen inor pasatzen; eta futbolzelaia katedrala bilakatu zen, eta katedrala lehoiek babesten zuten, eta katedralak gainezka egin zuen eta inguru guztietatik barruan geratzen zena jarraitzen zen, sufritzen zen, gozatzen zen; eta jokalariak miresten ziren, maitatuak ziren; eta mutiko guztiak futbolariak izateko irrikatzen zeuden, eta zerua San Mames eta paradisua futbol-zelaia; eta futbola behin eta berriro gorai-patua, eguneroko elikagai bezala.

Eta horretan sartutako diru franko ahantzia izan zen; eta egun harrigarri horietan langabeziaren arazoa ez zen aipatzen; eta emakumezkoek jasandako tratu txarrak ahaztu egiten ziren; eta diktadoreen zapalkuntzak alde batera lagatzen ziren; eta gazteen etorkizun iluna izkutatua zen; eta begiek ez zuten besterik ikusten baloia baizik; eta telebista, prentsa, irratia, futbolaz blai zeuden... Hura zen gloria!

*"Baina biharamona ailegatu zen, eta irabazte horren zoriontasuna amatatzen joan zen; eta bizilagun bakoitzak bere errealitate gordinera bueltatu behar zuen; eta eguzkiak ez zuen lehen bezala berotzen eta..."*

Baina biharamona ailegatu zen, eta irabazte horren zoriontasuna amatatzen joan zen; eta bizilagun bakoitzak bere errealitate gordinera bueltatu behar zuen; eta eguzkiak ez zuen lehen bezala berotzen eta...

Hala ere, garai itxaropentsuak zetozen partidu anitz jokatzeko aukera berriak izango baitziren: mundialak, udako torneoak, beste liga bat eta derbyak... Jaungoikoari esker eguzkiaren izpiaz gozatzeko parada izango zuten berriz ere.

Hala bazan ez bazan sar dadila kalabazan, eta bestela ager dadila Bergarako plazan. B

## barruan



**Mikel Usabiaga**

Teknologia berrien irakaslea

***"Gaur egun ematen diogun erabileragatik familiaren etsaia bihurtu da telebista"***

8. orrialdean.



**Virginia Imaz**

Klowna

***"Pailazo batentzat, Cirque du Soleil Hollywooden parekoa dela uste dut"***

17. orrialdean.



**Gorka Martin**

Pilotaria

***"Etxean sekulako afizioa dago: txikitan aitak partiduetara eramaten ninduen"***

22. orrialdean.

# orain dela...

**Bergaran gertatua**

***1906.*** Maiatzaren 24ean Markos Agirreolea jaio zen Barrenkalea 19an. Valladoliden egin zuen zuzenbide lizentziatura eta Madrilen doktoradutza. Gerra aurreko Madrileko Gobernuan, Euzko Jaurlaritzan eta Venezuelako Gobernuan izan zituen goi-karguak.

**Euskal Herrian gertatua**

***1842.*** Miatzaren 23an Santa Kruz apaiza jaio zen Elduaienen.

***1857.*** Miatzaren 19an Banco de Bilbao sortu zen.

***1983.*** Miatzaren 18an Atlhetic-ek Gabarran igo zuen ibaia Espainiako Ligaren garaipena ospatzeko.

**Munduan gertatua**

***1953.*** Maiatzaren 20an Hillary zelandaberritarra eta Norgay sherpa lehen aldiz igo ziren Everestera.

## zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 15**
12-15-24-25-28-46 (osag.29/er.2)

**Astelehena 18**
4-17-22-42-44-46 (osag.13/er.8)

**Martitzena 19**
3-11-15-33-45-47 (osag.2/er.3)

**Eguaztena 20**
5-19-22-29-32-40 (osag.6/er.8)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 16**
1-2-12-34-44-47 (osag.7/er.4)

**Domeka 17 *Gordoa***
3-9-35-39-41-45 (osag.11/er.8)

**ONCE**

**Eguakitza 15:** 55.995 (K. seriea: 017)
**Astelehena 18:** 27.681
**Martitzena 19:** 78.365
**Eguaztena 20:** 35.901

**BESTE BATZUK**

**Bedelkar, harakinak:** 7.681

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Urdinguneak eta hodeiak tartekatuko dira zeruan astebururuan. Goiz partean garbiagoak izango ditugu eta egunak aurrera egin ahala lainoz estaliko dira. Euri zaparraden bat ere bota dezake. Domekan zertxobait hoztu egingo du.

## Ilargiaren aldiak

Ilbehera: maiatzak 19

Ilberri: maiatzak 25

Ilgora: ekainak 2

Ilbete: ekainak 10

## Eguzkia

*Domeka, maiatzak 24*

Sortu: 05:53

Gorde: 20:35

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 14** | 23 | 10 | - |
| **Eguakitza 15** | 18 | 14 | - |
| **Zapatua 16** | 23 | 14 | - |
| **Domeka 17** | 25 | 12 | - |
| **Astelehena 18** | 26 | 6 | - |
| **Martitzena 19** | 26 | 8 | - |
| **Eguaztena 20** | 27 | 9 | *0,2* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Aitzen emon**

Aditzen eman, jakinarazi.

*- Aitzen emoixok ire anaiai biar afaixa dagola.*

*- Hiru aldiz aitzen emon notsan ixilik egoteko, baiña kasoik pe ez.*



Josu Okina

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Robot gitarrajoleak

Aurrerantzean, automatek musika taldeak osatu ahal izango dituzte. Hori dirudi behintzat Tokioko azken *Roboten Nazioarteko Erakusketa*n ikusi ahal izan denaren arabera. *Mubot* robotak, esate baterako, 30 pieza jo ditzake biolontxeloz eta Japoniako Elektrokomunikazio Unibertsitateak aurkeztutako *Genvuk* 50 doinu tradizional.

## Farmaziak

**Eguakitza 22:**
GUALLAR. *S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
GAUEZ: MORALES, *Arrasate. 943 79 18 65.*

**Zapatua 23:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
GAUEZ: AZKOAGA, *Arrasate. 943 79 15 15.*

**Domeka 24:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
GAUEZ: ESPAÑOL, *Arrasate. 943 79 14 88.*

**Astelehena 25:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
GAUEZ: CORCUERA, *Arrasate. 943 79 22 26.*

**Martitzena 26:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
GAUEZ: IRIZAR, *Arrasate. 943 79 12 39.*

**Eguaztena 27:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
GAUEZ: AMEZUA, *Arrasate. 943 79 09 74.*

**Eguena 28:**
GUALLAR. *S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
GAUEZ: ZABALA, *Arrasate. 943 77 16 30.*

## Ogia

**Domeka 24:** Mizpildi.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 008 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 76 12 94 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 79 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak

## ESKELA

**Elisabete Arana Txintxurreta**

*Ane Olabarria ikaslearen ama.*

1998ko maiatzaren 18an hil zen.

*Joan den arren, bere lan haundiaren fruituak gure artean ditugu bere kemenaren adierazgarri.*

Akulu AEK euskaltegia

## hildakoak

**BERGARA**

**Margarita Sasieta Agirrebalzategi**
Maiatzak 13, 87 urte.

**Andres Prieto Plaza**
Maiatzak 17, 72 urte.

**Elisabete Arana Txintxurreta**
Maiatzak 18, 77 urte.

**Jose Murgia Lopez de Araia**
Maiatzak 18, 80 urte.

## jaiotakoak

**BERGARA**

**Oihana Ot Guenetxea**
Maiatzak 3

**Mireia Ibabe Garitano**
Maiatzak 13



**Unai Zabarte**
Maiatzaren 18an 12 urte. Zorionak! Lehengusuak.



**Jabier Rodriguez**
Maiatzaren 15ean 22 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



**Iker Alvarez**
Maiatzaren 21ean urtebete. Zorionak! Gurasoak eta arreba Rakel.



**Maite Amutxastegi**
Maiatzaren 18an 20 urte. Zorionak! Lagunak.



**Gaizka Urzelai**
Maiatzaren 31n 6 urte. Zorionak! Aitita, amama eta Danel.



**Danel Urzelai**
Maiatzaren 25ean 3 urte. Zorionak! Aitita, amama eta Gaizka.

**OHARRA**
*Datorren asteko Berrigara Pazkuetako jaiei buruzko ale berezia izango denez, ez da zorion agurren atalik izango.*



**Emma Hidalgo**
Maiatzaren 28an 19 urte. Zorionak! Familiakoak.



**Izaro Fernandez**
Maiatzaren 17an 2 urte. Zorionak! gurasoak.



**Ander Franco**
Maiatzaren 16an 6 urte. Zorionak! mireia eta etxekoak.



**Izaskun Arrese**
Maiatzaren 17an 14 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



**Xabier Larrañaga**
Maiatzaren 19an urtebetetzea. Zorionak eta muxuak! Etxekoak.



**Jesus Mari Cabo**
Maiatzaren 23an 24 urte. Zorionak! Etxekoak.



**Jose Antonio Cabo**
Maiatzaren 19an 20 urte. Zorionak! Familiakoak.



**Gaizka Marzan**
Maiatzaren 17an Lehen Jaunartzea. Zorionak eta ondo pasau! Etxekoak.



**J. Agirrebarrena**
Apirilaren 28an urteak. Zorionak! Mizpirualdeko lankide eta aitona-amonatxoak.



**Arantzazu Murgiondo**
17an 32 urte. Zorionak! Gorka, Aitor, Oier eta familiakoak.



**Edurne Martin**
Maiatzaren 29an 14 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



**Jorge Gonzalez**
Maiatzaren 20an 19 urte. Zorionak! Etxekoak.



**Ana Gonzalez**
Maiatzaren 15ean 17 urte. Zorionak! etxekoak.



**Jone Cot**
Maiatzaren 19an 24 urte. Zorionak! Lagunak.



**Jon Agirre**
Maiatzaren 16an 5 urte. Zorionak! Familiakoak.



**Oier Ugalde**
Maiatzaren 25an 2 urte. Zorionak! etxekoak.



**Arantzazu Narbaiza**
Maiatzaren 28an urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



**Lore Alcaraz**
Maiatzaren 23an 13 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



**Aurken Beistegi**
Maiatzaren 18an 10 urte. Zorionak! Familiakoak.



**Maria Goikoetxea**
Maiatzaren 21ean urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



**Beñat Etxezarreta**
Maiatzaren 30ean 9 urte. Zorionak! Etxekoak.



**Joxean Etxezarreta**
Maiatzaren 22an 35 urte. Zorionak! Etxekoak.



**Nekane Etxezarreta**
Maiatzaren 13an urtebetetzea. Zorionak! Ilobatxoa.



**Eli Asenjo**
Maiatzaren 18an urtebetetzea. Zorionak eat muxu haundi bat! Familiakoak.



**Eñaut Alzelai**
Maiatzaren 15ean urtebetetzea. Zorionak! Ander eta Julen.



**Josune Etxezarreta**
Maiatzaren 30ean urtebetetzea. Zorionak! Ilobatxoa.



**Jose M. Aranzabal Mila Anduaga**
18an 15 urte ezkondu zirela. Zorionak! 1. pisuko bizilagunak.



**Asier Mujika**
Maiatzaren 28an 17 urte. Zorionak! Institutuko lagunak.



**Nerea Arrese**
Maiatzaren 30ean 18 urte. Zorionak! Institutuko lagunak.



**David Bouzas**
Maiatzaren 26an 19 urte. Zorionak! Familiakoak eta lagunak.



**Rosa Etxeberria**
Maiatzaren 23an urtebetetzea. Zorionak! Agurne.



**Kepa Zabaleta**
Maiatzaren 23an 4 urte. Zorionak! Aita, arreba Ane, Iker eta familiakoak.



**Igone Agirrebeña**
Maiatzaren 20an 31 urte. Zorionak! Agurne.

# ANTZERKIA

▶ **Leo Bassi**ren "Instintos ocultos" antzezlana datorren eguakitzean, hilak 29, 22:30etan Elorrioko Arriolan.

# MUSIKA

▶ Jam. Gaur eguakitza, 21:30etan, **Señor No eta High Time** taldeak. 800 pezeta. Zapatuan, 22:00etan, **Parabellum eta Noizbait**. 1.000 pezeta.

▶ **Jesusmai & Noizbehinka** gaur eguakitza 22:30etan Eibarko J.B. Gisasola Musika Eskolan. Doan.

▶ **Naun, Bi kate eta Ekon** taldeak, disc-jockeyak eta Bartzelonako **Impaktes Visual** taldearen proiekzioa bihar zapatua Arrasateko Monterron parkean, 22:00etan hasita. AEDren 15. urteurrena.

# ERAKUSKETAK

▶ **Manu Muniategiandikoetxea**ren margoak Donostiako DV Galerian (San Martin, 5), ekainaren 7ra arte.

▶ **Zezenzaleak** taldeak antolatutako Lehen Abdon Juaristi Pintura Lehiaketara aurkeztutako lanak eta Juaristiren hainbat margo Kultur Etxean ikusgai, domekara arte.

DANTZA

## Euskal Jaia

**Noiz: domekan, 10:45etatik aurrera**
**Non: Herriko kaleetan**

Domekan, 15 urtera arteko 550 bat dantzari bilduko dira Bergaran, Euskal Jaiaren XXV. edizioa ospatzeko. Guztira, 14 taldek hartuko dute parte Euskal Jaiaren zilarrezko ezteietan. Aranzadi Ikastolako taldearekin batera, Bizkaitik Gorlizeko eta Romoko taldeak, Nafarroatik Altsasukoa eta Gipuzkoatik, Oñati, Arrasate (bi talde), Antzuola, Soraluze, Eskoriatza, Aretxabaleta, Urretxu, Azkoitia eta Oreretako dantzariak etorriko dira. Ibon Unamuno Xamatzeko ordezkariaren hitzetan, "gure hasierako asmoa 25 urte hauetan etorri diren talde guztiak ekartzea zen, baina aurrekontua 8 milioikoa zen eta ezinezkoa izan zaigu horri aurre egitea". Hala ere, lehen edizioaren antolaketan aritutako Manolo Etxabe, Fernando Lasa, Jose Luis Mendizabal eta Juanito Urresti plazentziarrei omenaldia eskeiniko zaie domekan.

Programazioari dagokionez, goizeko 10:30etan talde guztiak Seminarioan bilduko dira eta ondoren, 10:45etan, talde guztietako txistulariek diana joko dute herriko kaleetan. 11:30etan, alkate eta alkatesa txikien ongi-etorria egingo da Udaletxeko balkoian eta segidan taldeek euren dantzak eskeiniko dituzte kalez kale bazkal ordura bitartean. 17:00etan Seminariotik Plazara kalejira egingo da eta ordu erdi beranduago dantzen alardea. Mutilek Jorrai dantza, Txakarrankoa eta Banakoa dantzatuko dituzte; neskek, Makil txiki, Gipuzkoako zinta dantza eta Arku dantza. Talde mistoak, bestalde, Ikurrin dantza, Txulalai eta Zapatain dantzarekin arituko dira. Jaialdiari amaiera eman aurretik, partaide guztiek Txerri dantza eta Fandangoa eta Arin-arina eskeiniko dituzte. B



550 dantzari bilduko dira domekan Bergaran.

# IKASTAROAK

▶ **Txalaparta** ikastaroa, ekainaren 4tik uztailaren bukaerara arte, eguenetan 19:00-21:00, Kartzela Zaharrean, Jardunek antolatuta. Plaza mugatuak. 76 36 61.

▶ **Glotodidaktika** ikastaroa Deba Garaiko AEKk antolatuta. Plaza mugatuak. Argibideak eta izen-ematea (maiatzaren 29ra arte) 76 05 18 telefonoan.

▶ **Tai-chi** ikastaro intentsiboa ekainaren 6an eta 7an Zestoako Sastarrain baserrian. 71 41 91.

# DEIAK

▶ **AEDren 15. urteurrena**. Domekan, 10:30etan hasita, umeentzako jolasak


**TXALAPARTA IKASTAROA** *ekaina eta uztailean*

**Kartzela Zaharrean**
*Eguenetan 19:00etatik 21:00etara.*
**Hasiera eguna: ekainaren 4a.**
*Irakaslea: Andoni Goiti.*

**Prezioa: bazkideek 1.500 PTA, gainontzekoek 2.000. Plaza mugatuak.**
*Izena ematea: Kartzela Zaharrean.*
*943 76 36 61 / 76 08 19. Epea: maiatzaren 28ra artekoa.*

Jardun

Iparraldeko herri kirolen ikuskizuna, herri bazkaria, dantzaldiak edota musika kontzertuak. Ekitaldi guztiak Jokin Zaitegi kanpoko eta barruko guneetan, Biteri gunean eta Zaldibar gunean izango dira.

▶ **Alpino Gorla**k eta Pol-Polek antolatuta, egun guztirako mendi irteera domekan Burdinkurutzeta-Orbaitzetara. Irteera 7:00etan Frontoitik.

▶ **Jaietako herri bazkarirako txartelak** (1.300 PTA) salgai Arrano, Kortazar eta Pol-Pol tabernetan eta Kartzela Zaharrean.

▶ **Euskal Bizikleta**ren inguruko mahai-ingurua astelehenean, 19:30etan Kultur Etxean. Partaideak: Xabier Usabiaga, Txomin Perurena eta Haimar Zubeldia.

▶ **Komite Internazionalistak** taldeak udako brigaden aurkezpena egingo du martitzenean, hilak 26, 19:30etan Kultur Etxean.

▶ **Odol ateraldia** egingo da eguaztenean, hilak 27, 18:30etatik aurrera Seminarioko lokalean.

▶ **Ipuin kontaketa** saioa eguaztenean 22:00etan Pol-Polen. Oihulari Klowneko Rakel Imaz eta Melo Ruiz.

▶ **Presoak Euskal Herrira** ekartzea esijitzeko Senideak-en konzentrazio ixila eguaztenean, hilak 27, 20:00etan Plazan.

▶ **Rolling Stones** taldea ekainaren 18an San Mamesen ikusteko irteera antolatu du Jam-ek. Bidaia eta sarrera, 8.000 pezeta (7.500 Jam Klubeko bazkideentzat). Izen-ematea 76 35 81 telefonoan.

▶ Aranzadi Ikastolak antolatuta, **Amaia Vazquez** psikologoaren "Askatasuna/ Autoritatea gure seme-alaben heziketan" izenburuko hitzaldia astelehenean, hilak 25, 18:30etan Plazako psikomotrizitate aretoan. Eguaztenean, guraso eta irakasleentzat zuzenduta, "Gure Ikastolan kalitatea ezartzeko bideak" gaia aztergai ordu eta toki berean.

▶ **San Joxepe** jubilatuen elkarteak Errenteriko San Marcos mendira joateko egun osoko irteera antolatu du maiatzaren 26an. Izen-ematea (2.500 pezeta) Jubilatuetan.

## KINTADAK

▶ **1958**an jaiotakoen afaria ekainaren 6an, Antxonin. Izen-ematea Intxorta tabernan edo Antxonin bertan.

▶ **1953**an jaiotakoen afaria uztailaren 4an, Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Antxonin bertan.

## Z I N E A

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**
**El hombre de la mascara de hierro**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**ARRASATE. Alai zinema**
**U.S. Marshals**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

**ARRASATE. Amaia**
**Persiguiendo a Amy**
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**
**Scream 2**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Torrente**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Mejor... imposible**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 22:30.
Astelehena: 19:30.

**ELORRIO. Arriola**
**Mejor... imposible**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00
Astelehena: 20:00.
**Brigadas del espacio**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**AZKOITIA. Baztartxo**
**Cuatro dias de septiembre**
Eguakitza, zine-kluba: 22:00.
**U.S. Marshals**
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

**EL HOMBRE DE LA MASCARA DE HIERRO**
***Zuzendaria***: *Randall Wallace.*
***Aktoreak***: *Gerard Depardieu, Gabriel Byrne, Jeremy Irons eta Leonardo DiCaprio.*
Urte asko dira mosketeroek azken aldiz elkarrekin borrokatu zutenetik. *D'Artagnan*ek (Gabriel Byrne) *Luis XV*.aren guardia buru postuan jarraitzen du; *Aramis* (Jeremy Irons) klerikoa bilakatu da; *Athos* (John Malkovich) bere semearekin bizi da, lasai-lasai eta *Porthos*ek (Gerard Depardieu), berriz, garai bateko borrokak botatzen ditu faltan. Mosketeroek erregearen aurka altxatzeko indarrak batuko dituzte berriz...



**TORRENTE, EL BRAZO TONTO DE LA LEY**
***Zuzendaria***: *Santiago Segura.*
***Aktoreak***: *Santiago Segura, Javier Camara eta Tony Leblanc.*
Santiago Segurak izugarrizko arrakasta lortu du *Torrente* polizia faszistaren gorabeherekin. Filmea estreinatu zenetik publikoaren erantzun ezinhobea jaso du eta oraintsu Cannes-eko Jaialdian erakutsi berri da. Pantaila handiarako Tony Leblanc aktorea berreskuratu du Segurak.

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.


**ARGI PLASTIC**
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...
**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**
Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tl.: 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

Bergarako jaixetan ere gozatu gure terrazako eskaintzak:
**OILASKO, ERREKI ETA MENU BEREZIAK!**
Tartufo Jatetxea
**ONDO PASAU JAIXETAN!**
San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.
Enkarguak hartzen dira

**Mondragon Unibertsitatean teknologia berrien irakaslea den Mikel Usabiagak telebistaren erabilerari buruzko hitzaldia eman zuen astelehenean Aranzadi Ikastolan. Telebista kriterioarekin erabiltzearen garrantzia aipatu zuen Usabiagak.**

# MIKEL USABIAGA
## Teknologia berrien irakaslea

# *"Gaur egun ematen diogun erabileragatik familiaren etsaia bihurtu da telebista"*



Usabiaga Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da.

**G.** Telebista ikustea ona ala txarra da?

**E.** Nire ustez telebista neurrian ikustea ona da. Telebistak oso gauza onak eta oso gauza txarrak dauzka eta, beraz, erabiltzen jakin behar da. Arazo nagusiena da gaur egun ez garela aukeratzeko libre ez garela, telebistara engantxatuta gaudela.

**G.** Zela ikas dezakegu telebista ondo erabiltzen?

**E.** Gure seme-alabei gauza pilo bat erakusten diegu baina telebistaren kasuan ez daukagu erreferenterik, ez daukagu kriteriorik zela jokatu jakiteko. Badaude lau ideia nagusi: alde batetik, inoiz ez umeek (6 urtetik beherakoez ari naiz) telebista bakarrik ikusi; bestetik, umeekin negoziatu zenbat telebista ikusiko duten, horretaz hitzegin; hirugarrenik aukeratu, eta umeak ez badira aukeratzeko gai, gurasoek aukeratu ditzatela seme-alabek ikusiko dituzten programak; eta, azkenik, telebistari buruz hitzegitea. Oso txarra da umeak isilaraztea, umeek telebista aurrean denak isilik egon behar gerala ikasiko dute bestela.

**G.** Ia ia familiako kide izatera igaro da telebista...

**E.** Nik ez nioke kategoria hori emango. Gaur egun ematen diogun erabileragatik familiaren drogà bat, etsaia bihurtu da (familiaren komunikazioa apurtzen duelako neurri handi batean). Hitzegiten badugu ikusten ari garenari buruz, azkenean festa bihurtzen duzu eta telebista aitzakia bat izan daiteke hitzegiteko, jolasteko... Gauza onak baditu telebistak; adibidez gaur egungo ume batek bolkanak, abereak.... mila gauza ikusten ditu, guk ikusi ezin genituenak. Telebista ez baduzu kontrolatzen, berriz, ume batek 6 urterekin igual ikusi ditu 4.000 hilketa eta ez dakit zenbat indarkeriazko ekintza....

***"Telebista neurrian ikustea ona da. Erabiltzen jakin behar da. Arazo nagusia zera da: gaur egun ez garela libre aukeratzeko"***

**G.** Telebistan ikusten den biolentziak zelako eragina dauka haurrengan?

**E.** Kaltegarriena telebistak konfliktoak konpontzeko ematen duen eredua da. Mila modu daude gauzak konpontzeko baina telebistan beti dena kolpeka konpontzen dute; biolentzia nagusitzen da beti. Bestalde, ekintza biolentoei buruz informatzean beldurra sartzen digu telebistak. Ondorioz, gaurko gaztetxoek beldur gehiago daukate gauez kalean bakarrik ibiltzeko. Gurasoei aholku bat emango nieke; seme-alabei ez lagatzeko albistegiak ikusten. Telebistak gurasoek eta irakasleak uzten dizkieten hutsuneak hartzen ditu; guk ez baldin badiegu hutsunerik uzten gure iritzia telebistaren gainetik egongo da beti.

**G.** Zer iruditzen zaizu haurren programazioa?

**E.** Txarra, ez dute umeengan pentsatzen eta ez da errespetatzen Europako legedia. ETBn adibidez, umeen programazioko atsedenaldietan gaueko pelikula bortitzenaren irudirik bortitzenak ematen dituzte. Antena 3-en arratsaldean "Los Simpsons" botatzen dute eta ez da umeentzako programa bat. Demostratuta dago haurrak ez daudela prest edozein telebista ikusteko baina programadoreek beste interes batzuk dituzte. Faltan zer botatzen dudan? "Los cinco"ren tankerako deskubrimientoko abenturak, ipuinak, "Barrio Sesamo" estiloko programak edota "La hora de Bill Cosby" estiloko telesailak (ez zeukan batere biolentziarik eta arazo baten aurrean modelo atseginak sortzen zituen). B

# Udal pilotalekuko taberna errentan hartzeko lehiaketa publiko berria

## Baldintza pleguak onartu zituen Udalbatzak eguaztenean

**Udal Frontoiko tabernaren adjudikazioa arautuko duen baldintza pleguak onartu zituen Udalbatzak eguaztenean.**



Tabernako errentaria, frontoiko kantxan pilotan eskuz jokatzeko orduen alokairuaz ere arduratuko da. ARTIXBOA

Beraz, Udal Pilotalekuko tabernaren ustiapena lehiaketa publikora aterako du berriz ere Udalak eta 26 eguneko epea izango da eskaerak aurkezteko. Plenoa eguerdian izan zen eta HBko zinegotziak ez ziren bertan egon, lan orduetan ezin dezaketelako Udalbatzarretan parte hartu.

Gogoratuko duzuen moduan, Gabonen aurretik lehiaketa publikora atera zuen Udalak frontoiko tabernaren ustiapena, baina ez zen eskaririk aurkeztu. Oraingo errentariei urte bukaerara arte luzatu zitzaien kontratua eta baldintza pleguak aldatuta, berriz ere lehiaketa publikora atera zen. Bigarren lehiaketa hartan eskaera bakarra aurkeztu zen, oraingo errentariena, hain zuzen ere. Euskara maila frogatzeko azterketa egin zitzaien eta ez zuten gainditu. Halere, Udalak oraingo errentariei sei hilabetez kontratua luzatzeko erabakia hartu zuen eta, orain, berriz ere lehiaketa publikora atera du frontoiko tabernaren ustiapena. Oraingoan, ordea, baldintza pleguetan ez da eskatuko euskara jakitea.

Eguastenean Udalbatzak onartutako baldintza pleguetan jasotzen denez, urteko kontratua egingo zaio errentariari eta, gutxienez, 100.000 pezeta gehi BEZ ordaindu beharko du hilero. Kontratua hiru urtez luzatzeko aukera izango da eta, kasu horretan, aurreko urteko KPIa aplikatuko zaio alokairuari.

Tabernako errentariaren ardura izango da, besteak beste, pilotan eskuz egiteko kantxa alokatzea. Kantxan pilotan egiteagatik orduko 1.000 pezeta kobratuko da eta diru hori tabernako errentariarentzat izango da kontratuaren lehendabiziko urtean.

Bestalde, garbiketarako eta pilotalekuan egin beharreko pintaketa lanak egiteko materialak errentariak bere kontura erosi beharko ditu eta pilota partidu profesionalen ostean, kantxako paretetan eragindako urraketak konpontzea, dagokion pintura erabilita, ere tabernako errentariaren ardura izango da. Beraz, tabernaren ustiaketaz gain, pilotalekuaren hainbat mantenimendu lan ere egin beharko ditu.

Eskaerak Udaletxeko Erregistro Orokorrean egin beharko dira. Eskaerak aurkezteko oduan 50.000 pezetako fidantza laga beharko da.

**Pilotalekuaren mantenimendu lanak ere egin beharko ditu tabernako errentariak**

### Angiozarko frontoia

Bestalde, Angiozarko frontoian egiten ari diren obrak direla eta, aldagela eta biltegiak eraiki eta onartutako proiektua egokitu ahal izateko, 136,80 metro karratuko lursail zatia erostea onartu zuen Udalbatzak eguaztenean. Jabeei 54.720 pezeta ordaindu beharko dizkie Udalak. 1982 eta 1986an Bergarako Udalak ia mila metro karratuko lursaila erosi zien jabe hauei eta, oraingoan, frontoiaren berrizte lanak egin ahal izateko beste zati bat erosi beharko die. B



Joan XXIII.a plazaren berrizte lanak ia amaitu dituzte. Orain, espazio zabalagoa dago inguruan.

# Joan XXIII.a plaza berriztuari azken ikutua ematen ari zaie

## Artekalea datorren astean zabalduko da trafikoari

**Joan XXIII.a** plazaren urbanizazio lanei azken ikutuak ematen jardun dute aste honetan eta, beraz, datorren astetik aurrera ia prest egongo da plaza berria. Farolak jartzea eta Zer Nai taberna ondoko pasabidea txukuntzea besterik ez da geratzen. Orain arte Irizar aldera pasabidea zabaldu eta zorua, argiteria eta estolderia berriztu egin dituzte. Bestalde, 22 autorentzako tokia egokitu dute. Lehen baino aparkaleku gutxiago badaude ere, autoak era ordenatuagoan aparkatuko dituzte aurrerantzean.

Bestalde, datorren astean zabalduko da trafikora Artekalea, Udaletxe atzealdean adokina konpontzeko lanak amaitu eta gero. Horretaz gain, jaiak gain-gainean ditugula eta, hainbat trafiko aldaketa agindu dizkigute udaltzaingotik: Ibargarai itxita egongo da jaietan barrakengatik eta entzierro egunetan Irizar eta Ramon Maria Lili kotxez libre laga beharko dira. Horretaz gain, eguakitzean eta zapatuan, Euskal Bizikletaren etapa baten amaiera eta hurrengo egunekoaren hasiera direla eta, Ibargarai, Faiskozuri eta Bideberri itxi egingo dira.

Hauek guztiak kontutan izanda, jarritako seinalizazioa errespetatzea eta kotxea ahal den neurrian ez erabiltzea eskatu dute Udaltzaingotik. B

## Etxaniz Askatu Plataformak ez du manifestaziorik antolatuko

**Jose Mari Etxaniz** Askatu plataformak ez du manifestaziorik antolatuko Bergarako jaietan. Preso bergararra aske lagatzea eskatzeko plataforma herritarrak antolatuko dituen ekintzen artean, Pazkuetan manifestazioa antolatuko zutela adierazi genuen joan zen asteko Berrigaran. Halere, plataformak ez du manifestaziorik egingo eta Senideak edo Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuko duena apoiatuko du. Plataforma astelehenean iluntzeko 8etan bilduko da berriz ere. B

## Jubilatuen elkartearen kuota

**San Joxepe** jubilatuen elkarteko bazkideek ekain bukaerara arte daukate aurtengo kuota (1.000 PTA) ordaintzeko epea. Idazkaritza zabalik izango da astelehenetik eguakitzera, goizeko 11etatik 12:30etara eta arratsaldeko 4:30etatik 6etara. Kuota ordaintzeko, bazkide txartela eraman beharra dago. B

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Iraola, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

# Zezen txuliatzaile nafarren erakustaldia jaietako zapatuan

## Ohikoa den moduan, zezenketa izango da domekan

**Pazkuetako zezen jaiak eta hauek iragartzen dituen kartela aurkeztu zituen Zezenzaleak taldeak joan zen zapatuan Gure Ametsa elkartean.**

Aurtengo Pazkuetako zezenketako kartela Juan Jose Altuna pintoreak egin du. Altuna Akizuk irabazi du Zezenzaleak taldeak eta Beart elkarteak antolatutako Lehen Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa eta zapatuko ekitaldian 150.000 pezetako saria jaso zuen Mertxe Lasa, Abdon Juaristiren alargunaren eskutik. Victoriano Gallastegi alkateak, ostera, plaka oroigarri bat eman zion irabazleari. Juan Jose Altunak udaletxeko arkupeak, zezen klonikoak eta zezen plazako ateak, erdi zabalik, pintatu ditu

Bestalde, Juan Luis Bikuña Zezenzaleak taldeko ordezkariak, aurtengo zezen jaiak aurkeztu zituen. Pazko domekako zezenketan Javier Castaño salamancakarrak eta David Calleja getxotarrak hartuko dute parte eta Salamancako Lopez Chaves ganadutegiko bina txekor txuliatuko dituzte. Nafarroako zezen eskolako Alberto Alvarez, bestalde, sobresaliente lanetan arituko da. Zezenketetarako sarrerak salgai daude 2.200 eta 1.700 pezetan Kultur Etxean eta honako taberna hauetan: Ganbara, Canalejas, Zer Nai, Urrats eta Usoa. Ohikoa den bezala, zezenketa arratsaldeko 6etan hasiko da eta arratsaldeko 5:15etan, kalejira egingo dute mandako, agoaziltxo, agintari eta herriko zaletuen kuadrilek, Azpeitiako Udal Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

Nabarmentzekoa da, bestalde, zapatuan zezentxuliatzaile nafarren erakustaldia antolatuko dutela. Bikuñak gogoratu zuen moduan, zezenen adarren aurrean txuliatzeko ohitura artzain nafarretatik datorkigu eta horien omenez antolatu dute zapatuko jaialdia. Txuliatzaile nafarrek hainbat salto egingo dituzte zezenen aurrean.

Domekako zezenketa eta zapatuko zezen jaialdiaz gain, entzierroak eta enbolatuak ere antolatzen ditu jaietan Zezenzaleak-ek. B



Juan Jose Altuna, jaietako zezenketa iragartzeko egindako kartelarekin.

### Lehen hezkuntzako haurrentzako jaia

**Osasun** prebentzioa lantzeko lehen hezkuntzako hirugarren, laugarren eta bosgarren mailako ikasleentzako eta euskara errefortzuko taldekoentzako urtean zehar antolatzen den programari amaiera emateko antzerkia izango da eguenean Usondo parkean.

Azkona taldearen eskutik, “Patioan ikusiko gara” izeneko ordu eta laurdeneko ikuskizuna izango da. Udaleko Ongizate Sailak antolatzen duen Osasunkume programaren amaiera jaialdia izango da. B

### Bi bizikleta agertu dira Kiroldegian

**Labegaraieta** Kiroldegian bi bizikleta jaso dituzte eta ez dakite norenak diren, orain arte ez baititu inork erreklamatu.

Bizikleta bat Aratuzteetatik dago, norbaitek bertan laga eta berriz ere hartzera ez baita joan. Bestalde, orain dela bi astetik beste bizikleta bat dago. Bizikleten jabeak Labegaraietako tabernariekin jarri daitezke harremanetan. B

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Matxiategi Elektragintza C.B.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

# Berrigara

324 zenbakia.
1998ko maiatzaren 22a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97.**
**Faxa: 943 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.



Copyright: BERRIGARA.



Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599



BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** — **Gipuzkoako Foru Aldundia** — **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Legebiltzarra itxi da eta presoen gaiak konpondu barik jarraitzen du. 1995eko abenduaren 28an erabakia hartu zen arren, ordutik hona ezer ez da aldatu presoentzat, ehundaka eta milaka kilometrotara sakabanatuta jarraitzen dute orain dela 20 urte bezalaxe.

Senideak elkartekook uste dugu egon dela nahikoa denbora lehen legearen kontra egin zena konpontzeko. Baina politikoek gaia alde batera utzi dute ez zaielako interesgarri iruditu beren helburu politikoak lortzeko. Horregatik senideok ezin dugu egiten dihardugun bide luze honetan atsedenik hartu, jartzen dizkiguten oztopo guztien gainetik kartzeletan izaten diren legez kontrako ekintzak eta zapalketak salatzen jarraitu beharra dugu.

Maiatzaren 27an, kalera irtengo dugu berriz ere, presoak Euskal Herrira ekar ditzaten exijitzeko. Bergarar guztiei dei egiten diegu egun horretan 20:00etan egingo den kontzentrazio ixilera bildu daitezen.

Elkartasuna azaltzea ez da delitua.

*Senideak*

### GURE IKASTOLAN KALITATEA EZARTZEKO BIDEAK

Datorren astean, asteazkenean 18:30etan, Aranzadi Ikastolak bere funtzionamendua hobetzearen inguruko gure iritziak azaltzeko aukera ematen digu. "Gure ikastolan kalitatea ezartzeko bideak" izeneko mahai-ingurua antolatu da egun horretarako, bertan.

Azkenaldian gustora aldatuko genituzkeen hainbat gauza entzuten ditugu gure ikastolaren inguruan. Era honetako komentarioak: gela batzuk istera doazela eta ez gaudela ados, amantalaren aldaketa, irakasle batzuk ikasleekin dituzten jokaerak, gurasoen partaidetza eskasa ikastolaren martxan, ez omen zaie ikastolako gora-beheren berri ematen gurasoei, eta abar.

Komentario hauek gehienetan presaka eta gehiegi pentsatu gabe egiten ditugu. Horrela entzunda, gure ikastolan zerbait gaizki dabilela pentsa dezakegu, eta gauza batzutan arrazoia izan badezakegu ere, denok garbi izan behar dugu egoera hau hobetu daitekeela.

Badakigu gehienok nola gabiltzan, presaka, gure eguneroko bete beharrak ezin beteta. Gehiago ezin dugula ere pentsa dezakegu, eta horrela, emaitza politak izan zitezkeenak, komentario eta ika-mika hutsean geratuko lirateke.

Baina, ez ahaztu gure seme-alabetaz ari garela hitz egiten, ez beste batzuenetaz, ez, gure gureetaz baizik. Gure artean hitzegiten ditugun gauza guzti horiek, aieneko edo kexa horiek, ez dira inora ailegatuko, ez dute ezertarako balio izango, egoera hau hobetzeko martxan jartzen ez bagara eta parte hartzen ez badugu.

Horregatik, ikastolan ditugun gure seme-alaben guraso garen neurrian, ikastolak eskaintzen digun aukera hau, hitz egiteko eta elkar ulertzeko ate irekia dela uste dugu. Egoera hau konponbide jator batera bideratzeko aproposa.

Gure seme-alabentzako kalitatezko irakaskuntza nahi badugu, gure esku dago ikastolari zorrotz eskatzea; baina, modu berean, gure ardura eta partaidetza jartzera behartuta gaude, amesten dugun kalitatezko irakaskuntza hori egi bihur dadin.

*N.G.G. (NA:13.100.192)*
*eta A.A.*
*Aranzadi ikastolako*
*guraso batzuren izenean*

## tira biraka: unai azkarate



atrebentzia ezpada

## Museoen Nazioarteko Eguna izan dela eta, noiz izan zara azken aldiz museo bat bisitatzen?



**Ugutz Basauri**

Azken aldiz Holandan, Van Goghen museoan. Aste Santuan egon ginen. Ezaguna da eta interesa geneukan ikusteko. Aukera dagoenean gustatzen zait joatea.



**Rocio Alcoceba**

Guggenheim ikusten egon nintzen eta batez ere arkitektura aldetik gustatu zitzaidan. Bestela, oporretan bakarrik daukat museoetara joateko ohitura.



**Amadeo Campos**

Urteak dira ez dudala museo bat bisitatzen. Egia esan, ez dut aukerarik izan azkenaldian museoetara joateko.



**Esther Fernandez**

Ideiarik ere ez, ez naiz akordatzen. Ez didate grazia handirik egiten museoek. Katedralak eta museoak ikustea nahiko aspergarria gertatzen zait.



**Jose Luis Larrañaga**

Orain dela 9 urte, Madrilen. Museo dexente bisitatu genituen orduan baina ez daukat ohitura handirik. Guggenheim ere kanpotik ikusi dut bakarrik...



**Olatz Gezalaga**

Ez naiz museoetara joaten, ez zaizkit gehiegi gustatzen. Kanpora baldin banoa igual museoren bat bisitatzen dugu baina ez naiz batere museo zalea.

bai, esan!

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Jesus Morenok** deitu digu bere haserrea azaltzeko. Jesus Morenok noizean behin Bilbora joan behar izaten du Pesa konpainiarekin eta zerbitzua nahiko eskasa dela adierazi digu. Zenbaitetan, Bilbotik bueltan, Arrasaten parada egin ondoren, Oñatiraino joaten da autobusa eta handik Bergarara etortzen da. Dilijentziaren garaiko ibilbidea Morenoren hitzetan, Bilbotik Bergarara etortzeko bi ordu pasa egiten baitu autobusean. Hori gutxi balitz, autobusen ordutegia jakiteko Pesak jarritako telefono zenbakira ordu jakin batzuetan deitu daiteke bakarrik. Askotan kontestadorea jarrita dago.

ikuspuntua: **xabier azkarate**

## *Aspaldi bai, baina...*



Bergarako Jaixetan erakusketa bat izango da "1930-1939, Bergara gerla zibilean" izenekoa. 15 hilebetetan talde bat jo eta su ibili da datuak biltzen handik eta hemendik, eta emaitzak ikusteko zortea edukiko dugu.

Informazio guzti horretatik gutxi bat irakurtzeko aukera izan dut eta esan behar dizuet nire barruan hainbat hauts harrotu dituela.

Aspaldi pentsatu nuen zerbait etorri zitzaidan gogora. Errepublikako gobernua hauteskundeetan aukeratuta izan zen, hau da, "demokratikoki". Gutxi batzuk herriak aukeratutako gobernuaren aurka "altxatu" ziren, hau da, "demokrazia" guztietan erabat legez kanpo dagoen zerbait egin zuten. Ondorioak ezagunak dira, milaka hildako, sekulako errepresioa, eta abar.

Eskatzen badiogu Alemaniako gobernuari, Argentinakoari eta beste batzuei barkamenak eskatzeko gertatu zenarengatik, ez ote da zilegizkoa Espainiako gobernuari gauza bera eskatzea?. Jakin badakit historia konplexua dela, baina eskaera hau guztiz legezkoa delakoan nago.

Erakusketa honetan argazkiek toki haundia hartzen dute. Ikusi nuen batek zer pentsatu eman zidan. Kultur Etxeko parkean pertsona hauek: bertako kontea, Moscardo generala, Ruiz De La Prada orduko alkatea, eta beste militar izardun batzuk. Bergarara etorri omen ziren Intxortako frentea eraso behar zuten egunaren bezperan. Majo denak kondearen etxean, itxura ederrarekin. Bitartean goian, frentean, jende mordoa elkarren artean hiltzen, behekoak zer erabakitzen zuten itxoiten; goikoen argazkiak ere ikusten dira.

Ez duzue pentsatzen astokeria haundienak gutxi batzuk erabaki zituztela eta orain ere gutxi batzuk erabakitzen dituztela?

Lan osoa ikusi barik eta zenbat gauza buruan bueltaka!

Zerbait interesgarria ikusi nahi baduzue, joan zaitezte maiatzaren 28tik aurrera Udaletxeko Pleno Aretora. B

**asteko menua: sirimiri jatetxea**

# Itsasoko fruituen entsalada

**OSAGAIAK**
**(2 lagunentzat)**

- Kukulu bat
- Letxuga orri batzuk
- Tomate bat
- 4 almeja
- Txibierro bat
- 2 langostino
- Ganba eskukada bat
- Bi legatz xerra
- Zapo zati bat
- Txaka apur bat
- Azenario birrindua



SOFIA NAVARIDAS eta IGNACIO LARRAÑAGA
*Sirimiri jatetxeko sukaldaria eta jabea*

**PRESTAKETA**

- Ontzi batean ura, gatza eta limoi erdia jarri eta sutan ipini.
- Irekiten hasten denean, arraina eta mariskoa sartu eta bost minututan egosten laga.
- Egosi ondoren, uretatik atera eta hozten laga; arraina eta mariskoa ondo zuritu,garbitu eta zatiak egin.
- Plater zabal batean, erdian letxuga zatiak ipini eta, inguruan, kukulua (4 zati) eta tomate zatiak tartekatuta.
- Letxugaren eta kukulu eta tomatearen artean mariskoa eta arrain zatiak ipini.
- Entsalada ondo apaindu ondoren, txaka tiretan zatituta eta azenario birrindua gehitu. Bukatzeko oliba olioarekin, Jerez ozpinarekin eta gatza egin.

**adituen esanetan**

# Viagra

JOSE RAMON SERRANO, *ginekologoa*

Ingenieritza genetikoaren bitartez sortutako medikamentua da Viagra famatua. Historian zehar beste ikerkuntza askotan gertatu izan den moduan hasierako helburua beste bat zen; basodilatadorea izanik, bihotz arazoak dituztenentzat egokia izango zela uste zuten ikertzaileek. Hala ere, egindako frogetan, inpotentzia arazoaren tratamenduan efektu oso onak lortzen zituela ikusi zen. Ez da erreza jakitea inpotentziak zenbateko inzidentzia duen, kasu asko eta asko izkutatzen baitira. Hala ere, gaur egun gizonezkoen %10ak inpotentzia sufritzen duela kalkulatzen da. Orain arte, arazo hau zutenek, diabetikoen antzera, prostaglandina injektatzen zuten zakilean.

Viagra ez da afrodisiako bat; zakilean gorputz leizetsuetako basoen dilatazioa sortzen du eta beraz erekzioa ematen da. Dosiaren eta bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren arabera organismoan antzeko beste efektu batzuk eman daitezke, bistan, liseri-apariluan edo bihotzean alterazioak hain zuzen. Beste medikamentuekin gertatzen den moduan, indikazio egoki bat eskatzen du. Dena den oraindik ez da Estatuan komerzializatu. Andorran, berriz, 30 piluletako kaxa 60-70.000 pezetan eskuratu daiteke. B

**bergarako gordailutik**

## TORRANO SENDAGILEA

**Imanol Sorondo**

Mila zazpiheun eta hirurogeita laugarren urtean gaude. Miguel Torrano sendagilea da eta Bergaran egiten du zerbitzu hori azken bederatzi urte hauetan. Udaletxeak 502 erreal eta 4 marabedi eta erdi ordaintzen dizkio hilero bere lanagatik, eta esker ona agertzeko beste 300 erreal ematen dio urteko, dena horretarako ipinia dagoen zizatik hartua. Gainera, ohiturari jarraituz, talde batzuek ere ordaindu behar diote: Hirutasun Santuko Lekaide etxeak (Monja Zaharrak) urteko 30 dukat, Jesusen Lagundiko Ikastetxeak 14, San Pedroko Parrokiako apaiz taldeak 12, Santamainakoak 6. Kaleko etxe batera gaixoren bat sendatzera joaten bada, etxe horretakoak erreal erdi bat eman behar dio; urrutixeago joanik, Amillaga eta Zubiaurre, esate baterako, erreal bat; Amatiano, Irazabal, Belastegi, Mekoleta, eta Mendizabaletik, adibidez, deitzen badiote 3 erreal; eta Aiardi, Elorregi eta Elosura sendatzera joaten bada, 5 erreal.



Ezin du gau bat baino gehiago herritik kanpora egin, eta hori Udaletxearen baimenarekin eta gaixo larririk ez dagoenean.

Behartsuak sendatzera, nortzuk diren udaletxekoek erabakitzen dute, eta ospitalekoengana doan joaten da.

Izan du beste herri batera joateko aukera ona, baina hemen gelditzea izenpetu du. Hori bai, baldintza batzuk ipini dizkio Udaletxeari: beste 9 urteetan indarrak ahitzen joango zaizkiola eta bere esanera egongo den laguntzaile bat, praktikante bat, jartzeko kaletik kanpoko etxeetara bere izenean joan dadin. B



# Haurdunaldiaren osteko merienda

Urtarriletik martxora bitartean erditzea gertatzeko gimnasia klaseetan elkarrekin ibilitako emakume talde batek **merienda** egin zuen aurreko astean Espoloiko Zuhaizti tabernan. Euren seme-alaben etorrera ospatzeko txokolatada egin zuten eta umeak nahiko ondo portatu zirela esan behar. Horra hor argazkian agertzen direnak: zutik, Maite eta Ion Ander, Miriam eta Gorka, Arantxi eta Asier, Jone eta Unai, Sara eta Mikel, Viki eta Maite, Ana eta Mikel, Garbiñe eta Unai, Irene eta Jokin, Ane eta Ibon eta Pili eta Iosu; jarrita, Arantzazu eta Unai, Maria Eugenia eta Euken, Isabel eta Maria, Marisa eta Aritz, Paqui eta Markel, Ane eta Irati eta Mari Karmen eta Eider. Zorionak guztiei!

# Museoko piezak Udaletxean

**Seminarioko Zientzia Museoko piezak** ikusgai jarri ziren astelehenean Udaletxean, **Museoen Nazioarteko Eguna** ospatzeko. Bertaratutako ikusleek (223 **Xabier Aranburu** udal museologoak emandako datuen arabera) Museoko zoologia saileko eta zientzia eta teknika instrumentuen sekzioko 23 ale ezagutzeko aukera izan zuten, tartean leopardo eta tigrea, Euskal Herri aldean gutxitan ikus daitekeen txorizezena (Diputazioko zaindariek ehiztari bati ezarritako multa jarri ondoren kendutakoa), bisoia eta beste hainbat. Aranburu museoko arduraduna eta **Rosa Errazkin eta Iñaki Irizar** museoko langileak ikusleei beharrezko azalpenak ematen izan ziren eta jendeak interes handia azaldu zuen museoan egiten ari den lanarekin. Jendearen erantzuna ikusita, Aranburuk datorren urtean ere Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko zerbait antolatzeko asmoa azaldu du.



# Bergara erregionaleko txapeldun





**Bergara K.E.ko futbol talde nagusia**k aurtengo denboraldiko erregional mailako txapeldun titulua eskuratu du, zapatuan Donostiako **Baskonia taldeari 3 eta 0 irabazi** ondoren. Ordizian jokatutako partiduan erregional mailako bi multzoetako txapeldunak aurrez aurre izan ziren, Nietoren mutilak errez nagusitu zirelarik. **Igor Errasti**k bi gol sartu zituen eta **Iñigo Iriarte**k egin zuen bestea. Partiduaren ostean, Mikel Osoro taldeko kapitainak txapeldun kopa jaso zuen Juan **Luis Larrea** Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentearen eskutik. Aupa Bergara!!


LASAGABASTER
LASAGABASTER
AUKERARIK ONENA
DOCKERS
DOCKERS
pants by
Levi Strauss & Co.

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 17 zenbakia. 1998ko maiatzaren 22a.*

## Kale publizitatea arautu du Udalak

### Publizitatea Udalak onartutako lekuetan ipini beharko da

**Udalak "toki eta bide publikoetako publizitatea arautzeko ordenantza" onartu zuen maiatzeko lehenengo udal bilkuran. Hainbat lekutan jartzen diren iragarkiek eragiten duten irudia saihestu nahian, herriko zazpi leku zehatzetan publizitatea ipintzeko panelak jartzea erabaki zen. Leku horietatik kanpo jarritako iragarkiak kendu egin beharko dira, eta ordenantza betetzen ez duenak isunak jaso ditzake.**




*Maristetako horma honetan ere panela ipiniko du Udalak.*

Herri Batasuna eta Zutik izan ezik, beste alderdietako zinegotziek (EAJ, EA eta PSE) onartu egin zuten publizitatea arautzeko ordenantza. Erabakiarekin kalean eta etxeetako fatxadetan ipintzen diren iragarki, kartel eta antzerakoak modu arautu eta zentzuzkoan jarri daitezen lortu nahi du Udalak. Hala ere, ez da ordenantza honen menpean egongo "eskaparateetan dauden edo establezimenduen barruan jartzen diren kartelak, beraietan saltzen diren produktuei buruzkoak badira edo irabazteko asmorik gabeko kultur, kirol eta sozial elkarteenak badira". Udalak onartutakoaren arabera, aurreko azalpenean sartzen ez diren iragarki, kartel eta antzerakoei aplikatuko zaie ordenantza.

Mikel Larrea alkateak adierazi digunez, "orain arteko mezu denak berdin berdin jarri ahal izango dira baina erabakitako panel horietan ipini beharko dira. Guztientzako lekua gelditoko da, baina logika batekin egin beharko da, zentzudunak izan beharko gara guztientzako lekua egon dadin. Asmoa ez da adierazpen askatasuna moztea baizik eta iragarkiak non ipintzen diren zaintzea".

**Baimena eskatu edo isuna ordaindu**

Ordenantzaren arabera, baimena eskatu beharko da udaletxean, erabakitako panel horietatik kanpo iragarkiak ipini ahal izateko. Alex Lakuntza ZUTIKeko zinegotziaren ustez, "hartutako erabakia kalea erabiltzen dugunon aurka doa zuzen-zuzenean. Herriko taldeekin adostutako erabakia izan beharko litzateke eta ez ordenantza bat. Panelak edo leku zehatzak ipintzea ondo egon daiteke baina nire ustez, erabakia inposatu egin digute".

Panelak Kalebarren, Zurrategi, Herriko plaza, Ibarrondo, Antigua eta Errekalden orain arte erabili izan diren lekuetan ipiniko dira. Lekuotatik kanpo ezarritako kartelen arduradunek 10.000 PTAko isunak ordaindu beharko dituzte. Ordenantzan jasotako arauak betetzen ez dituztenek ere isunak jasan ditzakete.

*Baimena eskatu beharko da Udaletxean paneletatik kanpo iragarkiak ipintzeko*

### Keramika erakusketa

Maiatzaren 22, 23 eta 24ko astebururuan, keramika ikastaroan aritu direnen lanak ikusteko aukera izango da. Erakusketa udaletxeko areto nagusian ipiniko dute, eta ikusteko moduan izango da eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara.

### Billar txapelketa

Zapatuan, maiatzak 23, billar txapelketa jokatuko da Gaztetxean. Ping-ponga izan zen lehenengoa eta ondoren futbolin txapelketa antolatu zuten Gaztetxekoek. Zapatuan, berriz, billar txapelketa jokatuko da, arratsaldean zehar.

### Balkoi eta lore ederren lehiaketa

Hirugarren urtez egingo den balkoi eta lore ederren lehiaketan hartuko dute parte etxearen kanpoaldean lorak dituzten antzuolar guztiek. 15.000 PTAko bi sari banatuko dira, etxe zaharrak eta berriak bereiztuko baititu epaimahaiak. Sari banaketa San Juan bezperan egingo da, ekainaren 23an.

### Nortasun agiria berriztea

Nortasun agiria edo karneta berritzeko dutenek Eibarrera joan beharko dute, aurten ez delako izango Antzuolan egiteko aukerarik. Gainera, abizenak euskal grafiara aldatu dituztenek agiri bat eskatu beharko diete udaletxean, Epaitegiko langileei, gero karnetean aldaketa horiek agertzeko.

### Bits jaia

Zapatuan, maiatzak 23, jolasean egiteko aukera aparta izango dute umeek Zurrategiko plazan. Iazko Antzuolako jaietan bezalaxe, zapatuan ere nahikoa bits izango dute Zurrategira gerturatzen diren umeek.

# Ekitaldiz beteriko



### URRUÑAKO IKASTOLAREN ALDE

Eguerdiko hamabietan Urru-ñako ikastolaren proiektua-ren nondik norakoak ezagu-tu zituzten udaletxean bildu zirenek. Urruñatik etorritako bi lagun aritu ziren orain ar-te egindakoa eta gaur egun duten arazorik larriena azal-tzen. Urruñako alkateak au-rretik hitzemandako lur sa-la ez ematea erabaki duela eta, sinadurak ere bildu ziren alkateari aurkezteko. Idolazek sinadurak jasotzen jarraituko du eta, bide batez, herriko elkarteei eta udal korporazioari Urruñako ikastolakoen protesta taldiarekin bat egitea eskatuko die. Arratsaldean ikastolaren alde diru-a jasotzeko txistorra eta ardoa ipini ziren herriko plazan. Bestalde Urruñakoa zen kalean jotzen jardun zuen txaranga, eta dantzan egite-ko aukera ere izan zen.



### BENITO ETA JAIONE ARDI-MOZTEN

Jende dezente egon zen herriko ikastetxeko jolastokian Benito Es-naolak eta bere alaba Jaionek egin behar zuten ardi-moztea ikus-ten. Trebeziaz jardun zuten euren zereginean Benitok eta Jaionek.

HARIZKI

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

# an Isidroak

## SARALEGI ANAIAK ETA MINDEGIA

Baserritarren egunean, aizkolariak eta harri-jasotzailea ere izan ziren. Nartxi Saralegi eta Mindegia aizkolariak aritu ziren aurrez aurre. Lehenengo norgehiagoka Saralegik irabazi zuen eta bigarrenean, berriz, batera amaitu zuten. Tartean Migeltxo Saralegik 200 eta 250 kiloko harriak jasotzea lortu zuen.












## AIHERRA GEROZ ETA GERTUAGO

Aiherra kalearen inaugurazioa egin zuten San Isidro egunaren ospakizunekin batera. Aiherrako alkateak bistaratu zuen kalearen izena daraman plaka. Herriko dantzariek aurreskua dantzatu zuten eta Aiherrakoek, berriz, bertso bat eskaini zioten Antzuolako herriari.

**igor eta Txomin**

*Pintura orokorrean.*
*Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.*
*Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.*

ANTZUOLA ☎ 943 76 60 39
BERGARA ☎ 943 76 19 98

*Garbiñe*

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

*GERTA ZAITEZ UDARAKO!*



*Ondarre plaza 4, ANTZUOLA Tf. 943 76 61 56*

LARREA

TABERNA

**Kalebarren 17**
**ANTZUOLA**

# *Komuniuak* eta opariak

## Karmele San Sebastianekin berriketan

**Domekan soineko zuriak eta opariak nagusituko dira herrian. Hamabi haurrek, 6 mutil eta 6 neskak, lehen jaunartzea egingo dute. Lehen ere soineko zuriak ilusioa egiten zien orduko neskatilei, baina nolakoak izaten ziren orain dela 50 urteko jaunartzeak? Horri buruz aritu gara Karmele San Sebastianekin. Bera domekan lehen jaunartzea egingo dutenen katekista da. Beste lau lagunekin batera, DBHko lehenengo mailatik 6. mailara arteko neska-mutikoen heziketa erlijiosoaz arduratzen da.**



**Zer deritzozu gaur egungo lehen jaunartzeei?**

Elizkizuna lehen eta orain antzerakua izeten da, baiña egoeria diferentia da. Lehen bazeguan erlijiño aldetikan beste giro bat, sinismen hori gehixao bizi zan, inportantzia gehixao emoten jakon. Gaur alde hortatikan hoztasun haundixa dago, umiak eztauke lehengo girua. Ikusi besterik eztago lehenengo jaunartzian umiei egitten jakuen baloraziñua. Batzuk sekulako erregaluak jasotzen dittue, beste batzuk apaltxuago, gutxitxuago jasotzen dittue. Katekistiaren lana izeten da hori ekilibratu eta beste alderdi batzuk baloratzen lagundu.

**Lehen ez al zen ezer oparitzen egun horretan?**

Nik komuniua egin nebanian erregalorik? Ba ez, pagatxoren bat edo baiña erregalorik ez. Gure denporetan etzan izeten oingo moduko solemnidadiakin. Guk lehenengo jaunartzia egitten giñuan ostiral goiz baten eta jaixan egitten giñuana zan bigarren komuniua. Baiña oingo moduko erregalo barik. Orduan erregalua izengo zan gure amapuntakuak egitten zoskuna, kumuniorako bihar bagiñuan zeozer, misal txiki bat, mantillaren bat, zapata zurixak... erlijiño kutsuko zeozer izeten zan.

**Eta bazkaririk ez zen egiten?**

Oingo moduko gonbidautzak etzien egitten; amapuntakua eta etxe-gertukuak alkartzen ziren. Baiña lehenengo jaunartzekuan etzan egitten gonbidautzarik eta ezebe, hori izeten zan 2. kumuniuan.

**Baina ilusioa egingo zizuen?**

Hilleko lehenengo eguakitza izeten zan komuniua eta bigarrena beti egitten zan Aszentsio Egunian. Lehenengo komuniuan goizeko 8etako mezetan izeten zan eta ondorenian eskolara.

**Orduan, bigarren "komunioko" eguna izaten zen berezia?**

Neskak, behintzat, ilusiño mortala eukitzen giñuan soiñeko haura jazteko. Erregaluekin enaiz akordatzen, baiña soiñeko haura jazteko bai. Haren ondorenian Korpus Kristi eguna zetorren eta prozesiñoko inportantiena soiñekua izeten zan. Abadiak esaten zoskun "zuek eztaukuzue ilusiñoik egun horretarako, zuek trapuen ilusiñua daukuzue bakarrik". Akordatzen naiz gure aurretik komuniua egin bihar zebenak (maiatzaren 4an egin bihar zeben, eta maiatzaren batian edurra zihardan) jun ziela abadiana esatera soiñeko zurixa ezingo zebela jantzi eta komunio solemne horren eguna atzeratzeko.



*1967an 25 lagunek egin zuten lehen jaunartzea, aurten 12k egingo dute.*

*"Orduan erregalua izengo zan misal txiki bat, mantillaren bat, zapata zurixak..."*

GOROSTi Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

SURPE taberna
Girorik jatorrena!
Herriko plaza 2, Antzuola
Tf. 943 76 64 97

DESKARGA AUTOAK
Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60

# Virginia Imaz, klowna:
# *"Pailazo batentzat, Cirque du Soleil, Hollywooden parekoa da"*

**Virginia Imazek 12 urte daramatza Oihulari Klown taldean, umorez eta ironiaz eginiko lanak plazaratzen. Pailazotzat dauka bere burua eta jendearengan barrea pizten saiatzen da, barrearen funtzio terapeutikoaz konbentziturik. Lanaren aitorpena ere heldu zaio: Kanadan finkaturik dagoen Cirque du Soleil konpainia prestijiotsuarekin lan egiteko aukera izango du hurrengo hilabeteetan.**

Zela sortu da Cirque du Soleilekin lan egiteko aukera?

**E.** Irailean proba bat egin zidaten Bartzelonan. Lasai joan eta nahiko ondo atera zitzaidan, batez ere inprobisazio froga. Alde batetik egiten duzun lana eta lanerako daukazun jarrera ezagutu nahi dute. Bideo bat ere eraman nuen gure taldeko lana ezagutu zezaten eta asko gustatu zitzaiela esan zidaten. Nik uste emozioak ikutzen dituzten gauzak gustatzen zaizkiela batez ere eta gure lana hortik doa. Hala ere, proba egin nuenerako aurtengo ikasturtea nahiko finkaturik geneukan eta apirilera arte libre ez nengoela esan nien. Orain gutxi jaso dut beraien deia eta ekainean, printzipioz lau hilabeterako joango gara Kanadara Karmelo eta biok. Kreazioa eta formakuntza landuko dugu lau hilabete horietan, eta gero ikusi egin behar...

**G.** Horrelako konpainia batekin lan egiteak zer suposatzen du?

**E.** Oso pozik nago, batez ere egiten dugun lanaren errekonozimendua suposatzen duelako. Oso langilea naiz



Virginia Imazek 12 urte daramatza Oihulari Klown taldearen zuzendaritzan.

baina baita nahiko umila ere nire lanarekin; daukagun aberastasun bakarra gure esperientzia litzateke eta orain suertatu zaigun interkanbio posibilitate hori oso erakargarria da. Baina bertigo piskat bat ere ematen dit guzti honek. Pailazo batentzat Cirque du Soleil-ekin lan egitea aktore batentzat Hollywoodera joatea bezalakoa da. Froga egin zidatenean zirkoaren historia kontatu zidaten eta oso polita da. Bi lagunek jarri zuten martxan, oso mentalidade irekiarekin eta gaur egun mundu osoan espektakuloak erakusten dituzte. Kanadan finkatuta daude eta espektakulo egonkorrak dituzte hainbat tokitan, Las Vegasen eta Orlandon esate baterako. Horrez gain Ameriketan, Europan eta Asian jirak burutzen dituzte. Zortzi espektakulo dauzkate aldi berean eta 1.500 lagun inguruk egiten dute lan. Hasiera batean, Kanadan lau hilabate igaro ondoren, Orlandora joan edota Europako jiran hartuko genuke parte Karmelo eta biok baina ez dakigu oraindik zer egingo dugun. Taldeko informazioa ere bidali nien eta baliteke taldeko besteren bat ere etortzea gurekin.

**"Pailazo bezala ikusten naiz. Aktoresa ere banaiz; baina aktoresa guztiak ez dira pailazoak eta pailazo guztiak ez dira aktoresak. Nik pailazoa izatea erabaki dut"**

**G.** Zelakoa da Cirque du Soleil?

**E.** Oso zirko poetikoa. Ikuskizun guztiz bisuala eta sensitiboa da, kolore festa bat, oso jantzi dotoreekin etabar. Dena oso zainduta dago, eszenografia oso politarekin eta saio guztiak hitzik gabekoak dira. Musikak protagonismo handia dauka eta saioak klasikoak dira: dantzak, malabaristak, akrobatak, pailazoak... Animaliarik ez dute erabiltzen eta hori ere eskertzekoa da. Madrilen izan ginen "Alegria" euren espektakuloa ikusten eta liluraturik geratu ginen. Ez zait hainbeste gustatzen orain arte egon den zirkoa baina Cirque du Soleil gustatzen zait. Hona etortzen diren zirkoak gehienetan txikiak izaten dira, familiarrak. Denetik egin behar izaten dute: pailazoa dena ez da hain ona trapezioan edo aldrebres. Niri zirkoaren berrikuntza interesatzen zait gehien; pailazoak zirkotik kanpo interesatzen zaizkit. Klown eszenikoa, eta batez ere pailazoa berezkoa ez zaion espaziotan, kongresuetan adibidez, klowna aktore sozial modura.

**G.** Zure burua aktoretzat ala pailazotzat daukazu?

**E.** Nire burua pailazo bezala ikusten dut. Aktoresa ere banaiz, baina nire ustez aktoresa guztiak ez dira pailazoak eta pailazo guztiak ez dira aktoresak. Nik pailazoa izatea erabaki dut.

**G.** Zela jo zenuen umorearen bidetik?

## Oihulari Klown, ibilbide luzeko taldea

Virginia Imaz 1962an jaio zen Donostian eta hainbat antzerki taldetan aritu ondoren duela 12 urte Oihulari Klown taldea sortu zuen. Gaur egun 14 lagunek osatzen dute taldea eta dagoeneko 11 lan plazaratu dituzte, beti ere umorea jorratuz. Bere lanen artean, "Dena klowntrolpean", "Modelo klowntrapublizitarioa", "Ezerosotasun klownikoak" edota oraintsu estreinatu duten "Koloklown" aipa daitezke. Azken hau Askagintzaren enkargu bat izan da eta drogen gainean gizartean dagoen hipokresia salatu nahi izan dute. Bestalde, taldeak umeei zuzendutako lanak ("Alfonbra majikoa" esate baterako) egin ditu eta, era berean, klown ikastaroak antolatzen ditu urtean zehar. Urtean 200 bat lagun igarotzen dira ikastaro horietatik. Virginiak 6 urte eman zituen Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentruan (HHI-EPA) lanean eta duela 10 urte Oihulari Klown Angiozarren finkatu zen. Hala ere, Bergarako Udalaren laguntza falta salatzen du; "zurztasun egoeran jarraitzen dugu; subentziorik gabe, lokalik gabe eta bi alditan kontratatu gaitu Udalak bakarrik. Udaletxearengatik izango balitz, ez genukeen aurrera egingo... Eskerrak Euskadin eta Euskaditik kanpo lan dexente egiten dugula". Virginiak tarota ere jorratu izan du. Bere hitzetan, "orain ez daukat denborarik lantzeko. Intuizioan sinisten dut, batez ere. Niretzat etorkizunean jendea medizina errezagoekin sendatuko da: musikarekin, argiarekin, kolorearekin, eskuarekin. Nik jarraitzen dut intuizioa lantzen. Nire lanerako ezinbestekoa da entzutea, ez bakarrik belarriekin, bihotzarekin ere bai. Jendea nola dagoen aztertu, barruan zer daukan eta hori lanean aplikatu". B



**E.** Hasieran, eskolan eta lehendabiziko antzerki taldeetan, beti kulebroietako paperak, dramatikoak tokatzen zitzaizkidan. 19 urtera arte beti drametan, obra existentzialetan eta horrelakoetan hartu nuen parte. Orduan klown ikastaro bat egin nuen eta nahiz eta oso gaizki pasa, zerbait ikutu ninduen oso sakonean eta konturatu nintzen askoz ere sanoagoa zela barre egitea negar egitea baino.

**G.** Eta ikuslegoaren aldetik zer da errezagoa lortzeko?

**E.** Jendea bihotzean hunkitzea zaila da. Bakoitzak erabaki behar du ikuslegoa nola hunkitu. La Fura dels Baus antzerki taldeak adibibidez beldurrarekin eta amorruarekin hunkitzen du jendea, ez da erreza beraiek egiten dutena. Behin antzerki ikastaro bat egin genuen antropologo batekin eta artistok geneukan erantzunkizun etikoa aipatu zigun. Nik horretan sinisten dut eta nahiko tragedia eta drama daude munduan. Hobe da jendeari barre egiten laguntzea eta barre eginaz erreflesionatzea. Jendeak barre egiten duenean lasaitu eta sendatu egiten da piskat.

**G.** Eta zein da jendea barrearekin hunkitzeko formula?

**E.** Umore erreza izan ez dadila. Kontua gure buruari buruz barre egitea da. Telebistan normalean ikusten dugunez, jendeak beste norbaiti gertatzen zaizkion gauzei buruz barre egiten du normalean. Gu geure buruaz barre egiten saiatzen gara eta hori ez da batere erreza. Horretarako zure burua ezagutu eta onartu behar duzu lehenbizi eta hori batzuetan zaila izaten da.

**G.** Zelako umorea duzu atsegin?

**E.** Benetakoa, erreza ez dena. Umoreak buruan, bularrean edo tripetan jo dezake. Hirurak ikutzen baditu askoz hobeto; ingenioa egon behar da, sorpresa, emozioak izan behar dira, beldurra ere bai... Irrifarrea mantentzea zaila da eta pailazo batzuk irrifarrea ateratzen dute besteengan. Beste batzuk barre-algara edo malkoak...

**G.** Euskaldunok zelako umorea daukagu?



Jose Karmelo Muñoz eta Virginia Imaz Oihulari taldeko kideek Cirque du Soleil konpainiarekin lan egingo dute datozen hilabeteetan.

**E.** Infantila oraindik. Jendeak pailazoak umeentzako bakarrik direla uste du. Jende askok zazpi urte zitueneko gauza berdinekin egiten du barre oraindik. 30 urterekin sexu kontu batzuekin edo jendearen erorketekin ("Videos de primera" ikusi besterik ez dago) barre egitea oraindik ez dut ulertzen. Barre bakoitzak jendeari buruz hitzegiten du. Horretaz barre egiten dut, ba halakoa naiz. Umorea exorzitzatzeko eta debekuak transgreditzeko da. Bakoitzak ditu bere borrokak barruan eta horretaz barre egin behar du; hobe da barre egitea ezer ez egitea baino, kolpeka hasi baino. Barrea gaitzik txikiena da. Zerekin egiten dudan barre? Ez dut barre egiten edozein gauzarekin; askotan absurdoarekin. Eta jendearengan fijatzen naiz asko, nola mugitzen den, jendeartean zela konportatzen den... Jendeak barruan duen pailazoarekin barre egiten dut askotan.

**G.** Taldeko lanen kreaziorako zertan oinarritzen zara?

**E.** Inprobisazioan jeneralean. Normalean taldekoei gaiak eta inprobisaziorako estrukturak jartzen dizkiet. Horiekin jokatuz, beraiek inprobisatzen dute, bideoz grabatzen dugu eta gustatzen zaizkigun gauzak zuzentzen joaten gara. Azkenean idazten da istorioa baina hori da azkeneko zatia. Estreinuak gero terribleak izaten dira jendearen erantzunagatik beldur zarelako. Azken batean ikuslegoak bukatzen du espektakuloa.

**G.** Komiko batek umore txarra ere izango du batzuetan...

**E.** Bai, duda barik. Nahiko responsablea naiz, ni nahiko nukeena baino gehiago. Eta erantzunkizuna hartzen dugun neurrian, estresa sortzen zaigu. Baina saiatzen naiz gauzak ondo ikusten eta nire lanak pilo bat lagundu dit horretan, niretzat kriston terapia izan da. Horrela daude gauzak, horretaz nola egin dezakegun barre aztertzen dut. Eta gure lana ez da barre egitea bakarrik; emozioetatik gertu egon behar dugu, triste gaudenean, tristura hori onartu, anplifikatu eta distorsionatu horretaz parre egiteko. Ondo gaudenean, beste horrenbeste eta malaletxearekin ere malaletxe hori inozentziaz ateraz; baina malaletxearekin jarri behar banaiz jartzen naiz. B

***"Umoreak buruan, bularrean edo tripetan jo dezake. Hirurak ikutzen baditu, askoz hobeto; ingenioa egon behar da, sorpresa, emozioak izan behar dira, beldurra ere bai..."***

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA**

**Domekan barruan**

**16:30:** Gu Geu-Zutaz Pentsatzen
Arb.: Antolaketa Batzordea
**17:30:** Potzu Ta Zapaburuak-Nifis
Arb.: Antolaketa Batzordea

## argi!

**Play-offetako eta Kopako finalak jai ostean**
Mongatxurrak taldea Play-offetako eta Kopako finalak jokatzeko sailkatu da. Hortaz, seguruen bi partidu jokatu beharko dituzte astebukaera berean. Antolaketa Batzordeak bi finalak jai ostean, ekainaren 6an eta 7an, jokatzea erabaki du.

**Sari ugari banatuko dira**
Final egunetan sari ugari banatuko ditu Antolaketa Batzordeak. Liga erregularreko lau multzoetako lau onenek eta play-offetako eta Kopako txapeldun eta txapeldun ordeek eramango dituzte sariak. 20 sari banatuko dira guztira.

**Beste jokalari bat zigortua**
Joan zen asteburuan A Ze Flaxa Etxagik eta Bar Canalejasek jokatu zuten partiduan Bittor Jimenez (A Ze Flaxa Etxagi) kanporatua izan zen protesta egiteagatik. Behin kanpoan, modu txarrak erabili zituen aulkitxoan eta epaileen mahaiaren inguruan. Hori dela eta, datorren urtean jokatzen baldin badu zigorra ezarriko dio Antolaketa Batzordeak.

**Jokalarien nortasun agiriak Kiroldegian**
Aurten jokatu duten jokalarien NANak Kiroldegian jaso daitezke. Talde bakoitzaren jokalari guztien nortasun agiriak banatuko dira.

**Iragarritako partidu guztiak jokatuko dira**
Nesken futbito txapelketan iragarrita dauden partidu guztiak jokatuko dira aurrerantzean eta ez da bat bera ere bertan behera lagako. Bestalde, partidu ordurako prest egotea eta puntualitatez hastea eskatu du Antolaketa Batzordeak.

## jokoz kanpo



**Gorka Marzan**
PAGOMENDI

**G.** Zer moduz amaitu duzue liga?
**E.** Laugarren uste dut eta play-offetan final erdietara heldu gara.
**G.** Eta kopa?
**E.** Manitouk lehen partiduan kanporatu gintuen.
**G.** Nolako maila dago txapelketan?
**E.** Nahiko ona.
**G.** Arbitroa iraintzeagaitik jokalariak txapelketatik kanporatzea zer iruditzen zaizu?
**E.** Jokalariak une horretan bero daude baina ezin daiteke hori egin. Kanpora bidaltzea ere gogorregia dela uste dut.
**G.** Txapelketako talderik onena?
**E.** Pagomendi.
**G.** Eta jokalaririk onena?
**E.** Ibai Elortza.
**G.** Zure taldeko gauzarik onena?
**E.** Taldean daukagun giroa.
**G.** Eta txarrena?
**E.** Juerga gehiegi egiten ditugula.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Atezain.
**G.** Athletic Champions Leaguen izatea zer iruditzen zaizu?
**E.** Etxeberriak sartu zuen golean Guerrero jokoz kanpo zegoen.
**G.** Nork irabaziko du mundiala?
**E.** Ez dakit. Berdin zait.
**G.** Bergarako Lagunak talde federatua jarraitzen duzu?
**E.** Hemen jokatzen dituzten partiduak ikusten ditut.

## gora eta behera

**Mongatxurrak eta Bar Calalejas**
Mongatxurrak taldeak sekulako denboraldi amaiera egin du eta liga erregularrean bigarren postuan amaitzeaz gain, kopa eta play-offetako finetalarako sailkatu da; biak irabazteko aukera dauka: kopa eta ligako txapeldun. Era berean, nabarmentzekoa da Bar Canalejasen lana. Ligan laugarren postuan geratu bazen ere, play-offetan finalerako sailkatu da, bidean A Ze Flaxa Etxagi, liga erregularreko talderik onena, kanpoan lagaz.

**A Ze Flaxa Etxagi**
Urte osoan zehar aurrean egon ondoren eta liga erregularrean talderik sendoena dela demostratu arren, bai kopako zein play-offetako finaletan kanpoan geratu da: sekulako porrota. Ligan erakutsitako joku onarekin geratu beharko gara, baina benetako orduan huts egin dute eta txapeldunek ezin dezakete hori egin.

## emaitzak

**PLAY-OFFAK**

| | |
|---|---|
| A Ze Flaxa-**Bar Canalejas** | 2-3 |
| **Mongatxurrak-**Pagomendi | 3-2 |

**PROMOZIOA**

| | |
|---|---|
| Ortzi-Artusamak | 2-1 |

**NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Zutaz Pentsatzen-Azkenak | 15-4 |
| Gu Geu-Potzu Ta Zapaburuak | 3-0 |
| Nifis-Nahikari | 3-4 |
| The Road Island-Blue Star | 3-4 |


IZADI PILI GISASOLA
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

Mugertza harategia
GORA MAHONEROAK!
Mugertza harategiak, astero, 2 txuleta ematen dizkio BKEko futbol talde nagusiko golegile nagusiari

Mugertza 12, Bergara. Tf. 943 76 13 82.

Biko BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra
Tf. 943 76 71 19

# ESKOLA KIROLA

IKUSI ETA IKASI

## SASKIBALOIA

**Jaurtitzaile Zoroa**

- Joko eremua: Saskibaloi pista.
- Antolaketa: Banaka, baloi banaz eta saski baten aurrean.
- Materiala: Baloiak.
- Azalpen praktikoa: Jaurtiketa zuzenak alde eta distantzia desberdinetatik egingo dira, baloiari lurrean bote bat eraginez, esku batez, atzerantz e.a.
- Berezitasunak:
  - Saskien altuera jokalarien maila eta ezaugarrietara egokituko da.
  - Taldeak saski, baloi edota jokalari kopuruen arabera antolatu daitezke.
  - Jaurtiketa zuzenetan, irakasleak aldez aurretik azaldutako jaurtiketa teknika zaindu behar da.
  - Jaurtiketen distantzia eta tokia aldatzen joango dira, jokalarien maila eta ezaugarriak kontutan izanik.



TXINPARTAK

**Ipintza DBH 2. badmintonean**

Badmintoneko infantil mailako neskek, hau da, Cristina Fernandez, Vanessa Moreno, Nadia Moracho eta Rebeca Fernandezek, 2. eta 3. postuak lortu zituzten Gipuzkoako txapelketan Donostian. Bestalde, jaietako eguakitzean, Eskola Kiroleko final guztiak jokatuko dira eta, ondorioz, amaiera emango zaio aurtengo Eskola Kirolari.



## Aranzadi 4

Mikel Sarrao, Jakue Bernardo, Eneko Roige, Asier Aizpurua, Unai Iturrospe, Alvaro Aranzabal, Edu Orgaz (begiralea) Ander Sarrao osatzen dute Aranzadi 4 taldea. Joan zen astebukaeran eta bigarren aldiz, Hockeyan ibiltzeko aukera izan zuten. Kirol ezberdinak egin dituzte urtean zehar eta futbola izan dute gustokoen. Goizean goiz jaikitzea ez zaie horrenbeste axola kirola egiteko bada. Eskola Kirolean aritzeak lagunak egiteko aukera ematen duela adierazi digute. Athletic, Erreal eta Bartzelona zaleak dira eta oso pozik daude euskal taldeek lortu duten emaitzekin.



## Aranzadi 5

Aranzadi 5 taldea, Oihana Garai, Olatz Montalegre, Saioa Zumelaga, Josu Gantxegi, Igor Ezola, Aurken Beistegi eta Asier Bizentek osatzen dute. Hauek ere hockeyan aritu ziren. Noizbehinka zartatekoak hartu arren, azkar ikasi omen zuten patinetan ibiltzen. Nekeza ez dela azaldu dute eta aukera dagoenean patinekin ateratzen dira kalera. Kirol asko egin dituzte urtean zehar eta hauek ere guztietatik, futbola eta saskibaloia dituzte atseginen. Erreal eta Athletic zaleak dira eta jokalarien artean, Etxeberria, De Pedro eta Bonba dira gustokoenak.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Infantilak/Mutilak**

Zapatuan, Ipintzan

**11:30:** Ipintza-M Lagundia

**11:30:** Aranzadi-Kurtzeberri

**Infantilak/Neskak**

Zapatuan, Ipintzan

**10:30:** Aranzadi-Ipintza DBH

*Gipuzkoako Txapelketa.*

Zapatua, Herreran.

**11:00:** Sorginak-M Lagundia.

Autobusa 8:30etan. Geltokian.

**Alebinak/Neskak**

*Gipuzkoako Txapelketa.*

Zapatuan, Herreran.

**10:00:** Talaia A-Aranzadi 13

Autobusa 8:30etan. Geltokian.

### SASKIBALOIA

**Infantilak/Neskak**

Zapatuan, Almenen

**10:00:** Almen-Aranzadi

### ATLETISMOA

**Alebinak eta Benjaminak**

Zapatuan, Agorrosinen

**09:30:** 5. eta 4. maila

**10:30:** 3. maila

**11:30:** 4. maila

## Futbola

BKEko talde nagusiak erregional mailako txapeldun gelditu ondoren, oporrak hartu ditu. Mahoneroek denboraldi ezin hobea egin dute. Zorionak guztioi!

Bestalde, gainontzeko taldeek ez dute Bergarako jaiak arte denboraldia amaituko. Bigarren mailako jubenilek, partidu garratzitsua dute Arrasaten. Lehen eta bigarren postua jokoan dago. Bigarren mailako kadeteak, berriz, Tolosara doaz asteburuan. Bergarakoak bigarren postuan daude eta Tolosakoak behealdean. Ea gelditzen diren partiduetan goi-goian egotea lortzen duten. Neskak, Zumaiara joan beharko dira eta partidu erreza izan ez arren, espero dezagun denboraldia garaipenarekin amaitzea.

## Eskubaloia

Eskubaloiko kadete mutilak eta neskak denboraldi amaierara heldu dira dagoeneko. Mutilek, denboraldia eskas hasi arren, piskanaka gora egin zuten. Ez ziren ligan sailkatu baina Federazio Kopan, bigarren postua lortu zuten eta Gipuzkoako Kopan hirugarrena. Bestalde neskak, sailkapenaren goikaldean mantendu dira urte osoan zehar eta denboraldia bigarren amaitu dute. Hauek ere bigarren postua lortu zuten Federazio kopan eta hirugarrena Gipuzkoakoan.

Gainontzeko taldeak, Lijo eta Josetxoren mutilak hain zuzen, Bergarako jaietako aste bukaeran amaituko dute. Gazte mailakoak Almenen aurka arituko dira aste bukaera honetan eta Lijorenak Tolosaren kontra.

## Saskibaloia

Jakina da senior mailakoek duela bi aste amaitu zutela denboraldia. Hasierako partiduetan jokalari kopuruarekin arazoak izan arren, jubenil mailako jokalariak igo eta denboraldi polita egitea lortu dute. Igoera fasea lortzeak, partiduak presiorik barik jokatzea suposatu du eta, ondorioz, mailari eutsi diote. Zorionak!

Jubenil mailako mutilak ere denboraldi bikaina egin dute. Lehen mailara igo eta hasierako postuetan amaitu dute. Kadete mutilak, aldiz, zortzigarren gelditu dira. Jokalari askorentzat lehen urtea izan da fereratu gisa eta horrek ez du asko lagundu. Azkenik, neskak ere kaskar samar ibili dira, baina hauentzat ere federatuetan lehen urtea izan da.

## GORKA MARTIN / Pilotaria

## "Pilotari tradizionala naiz"

**Gipuzkoako banakako txapela irabazi du aurten eta, gaur, Bergara Hiria IV. Txapelketako finala jokatuko du promesa mailan, Etxabe eta Bengoetxea Eibartarren aurka 19:30etan.**

**G.** Txapelketa nola joan da?
**E.** Nahiko ondo. Hasieran, ez nintzen oso suelto ibili baina Baez-ek ondo jokatu zuen eta arriskatu ez genuenez, finalean izatea lortu dugu.
**G.** Nola ikusten duzu gaurko finala?
**E.** Gure taktika antzerakoa erabiliko dutela uste dut. Aurrelariak gogor jotzen du eta atzelariak asko aguantatzen du, beraz zaila izango da. Bestalde, hauek ere ziur jokatzera joaten dira eta ez dut uste asko arriskatuko dutenik.
**G.** Zerk eragin zizun pilotari izatea?
**E.** Etxean sekulako afizioa dago. Txikitan aitak partiduak ikustera eramaten ninduen.
**G.** Zenbat urte pilota munduan?
**E.** Bergarako elkartean zazpigarren urtea da.
**G.** Profesionaletan izanez gero, norekin jokatzea gustatuko litzaizuke?
**E.** Atzelari gisa, Zezeaga edo Elkoro izango nituzke lagun.
**G.** Zer nabarmenduko zenuke zure jokoan?
**E.** Nire jokoa ziur jokatzen eta sakean oinarritzen dela uste dut. Ez naiz errematatzaile ona eta, beraz, jokoa ziurtatu beharra daukat. Pilotari nahiko tradizionala kontsideratzen naiz.
**G.** Profesionaletako finalean zaudela amets egin duzu?
**E.** Ez. Gauetan lo egiten dut, normalean ez dut ametsik izaten. Baina pilotari guztien ametsa dela uste dut.



## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Bergara-Gazteak**
Lehen mailako jubenilak.
Zapatua 15:45. Ipintza.

**Bergara-Arrasate**
Lehen mailako kadeteak.
Zapatua 17:30. Ipintza.

**Bergara-Herrera**
Ohorezko infantilak.
Domeka 11:00. Ipintza.

### ESKUBALOIA

**Bergara-Almen**
Jubenil mutilak.
Zapatua 16:30. Kiroldegia.

### SASKIBALOIA

**Bergara-Aloña Mendi**
Kadete mutilak.
Zapatua 12:15. M Lagundia.

### PILOTA

PROFESIONALAK
Zapatua 16:30. Pilotalekuan.

- Alustiza eta Errandonea-Etxaniz eta Zezeaga.
- Ariznabarreta eta Zearra-Berasaluze VIII eta Taberna.
- Koka eta Barriola-Mingez eta Oliden.

BERGARA HIRIA
IV. TXAPELKETAKO FINALAK
Eguakitza 19:30. Pilotalekuan

*Promesak:*

- Martin eta Baez-Etxabe eta Bengoetxea

*Lehen mailako afizionatuak:*

- Urretabizkaia eta Gastezi-Yaniz eta Ruiz

# Aerobic saioa zapatuan

## Monitore, Nuria Rodriguez eta Nuria Serrano

**Bihar zapatua, aerobikeko erakustaldia izango da Udal Pilotalekuan. Astean zehar aerobik ikastaroan ari diren hainbat bergararrek, beraien trebetasuna ezagutzera emango dute. Guzti honi buruz, monitore arituko den Nuria Rodrigezekin hitz egin dugu.**

Hirugarren urtez, Udal Pilotalekua aerobik jarraitzaileen topagune bihurtuko da. Guztira, 60 lagun inguru bilduko dira zapatuan eguardiko 12:30etan.

"Duela bost urte hasi nintzen Bergaran aerobika erakusten eta hirugarren urtez, eta aurreko urteetan izandako erantzuna ona kontutan izanda, erakusaioa egitea pentsatu dugu. Jendea gero eta gehiago animatzen da, nahiz eta nagusiek gazteek baino lotsa handiagoa izan.

### Bi Nuria monitore lanetan

Aurten, Nuriarekin batera, monitore eta dinamizatzaile lanetan, Nuria Sierra arituko da. "Nuria nere ikaslea izandakoa da, titulua lortu zuen eta Elgetan aerobik klaseak ematen aritu da. Behin, ideia planteatu nion eta animatu egin zen. Bere taldekoak ere izango dira"


Bi monitoreak gogotsu dira zapaturako.

Bost atal ezberdin landuko dira; saltsa, stepa, stepa bikoteka, aerobika eta azkenik gazteagoek ere ariketak egingo dituzte. "Hasieran beroketa ariketak egingo ditugu, eta gero talde ezberdinek hainbat atal landuko dituzte. Uztailean ikastaro berezi bat izaten da zortzi eta hamahiru urte bitartekoentzat eta hau dela eta gaztetxoak ere animatu dira".

Aerobikean musika ezberdinak erabiltzen dira. "Ez da edozein musika mota erabiltzen. Erritmoa izan behar du eta horretarako kaset bereziak erabiltzen ditugu, ikastaroetan lortzen ditugunak" Kirol konpletoa izan arren, gorputzeko ataletatik, hanka da gehien lantzen dena. "Jendea animatu egin beharko litzateke. Ondo pasatuko dugu, eta gero gerokoak: deskantsatu eta bazkari on baten ondoren, gorputza ezin hobeto geldituko da". B

## Ipintzako futbol txapelketa prest

**Ipintzako** txapelketan parte hartzeko taldeen gehienezko kopurua osatu da. Mutiletan 22 taldek eman dute izena eta nesketan, berriz, zortzi talde daude. Aurten, lehenengo aldiz, Elgetako talde batek hartuko du parte txapelketan. B

## Biciprecisión Igartua-Moser taldea

**Joan zen zapatuan**, Igartua-F. Moser MTB taldeak Kanpetzuko Saria korritu zuen. Zortzi kilometroko ibilbidea, lau aldiz egin behar izan zuten. Iñigo Igartua bergararrak 3. postua lortu zuen eta bere taldekidea den Iñigo Roldanek 4.a. Saria eskuratu zuena Jose Luis Urdiain izan zen. Taldeko bergararrak, Iñigo Igartua, Aritz Kortabarrria eta Arkaitz Ruiz de Loizaga dira. B

## Bergara final laurdenetan

**Billabona** eta Oñati kanporatu ondoren, Herri Arteko Pilota Txapelketako final laurdenetara heldu da Bergara. Kadeteek galdu eta jubenil eta senior mailakoek Oñatiren aurkako itzulerako partiduak irabazi egin zituzten. Bergarakoak Lasarte-Oriaren kontra aritu beharko dira final laurdenetan. B

# Gimnastak Gipuzkoako txapeldun orde

**Gimnasia Erritmikoko** Gipuzkoako txapelketan emaitza bikainak lortu zituzten Bergarako neskek joan zen asteburuan. Zapatuan, Leire Lasak 4. postua lortu zuen alebin mailan eta Eneritz Olabarriak 14.ena infantiletan.

Domekan, berriz, federatuak izan ziren eta Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua bigarren gelditu ziren Espainiako txapeldunen aurretik eta Aintzane Narbaez eta Azahara Gonzalez bosgarren. Azken hauek junior mailan aritu ziren. Argazkian ikus ditzakezue Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldekoak. B



# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***


**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

S. Pedron. 943 76 52 72.

Barrenkalean apartamentua salgai. 943 76 56 41/76 04 69.

Madura. 943 76 41 07.

Pisua salgai Zabalotegi dorrean. 943 76 33 93.

Aranerreka (Bolu). 943 76 51 54 (20:00-23:00).

S. Antonio. 943 76 56 20.

### Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 76 03 31/79 83 50.

### Errentan emateko

Pisua alokairuan Alcoceber-en udan. 943 76 12 14.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Bolu. 943 76 47 99.

Masterreka. 943 78 36 65 .

Aranerrekan (2 plaza itxita). 943 76 06 96.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Torrekua. 950.000 PTA. 943 76 19 72.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garajea salgai. 943 76 40 03.

### Errentan emateko

Garajea alokairuan Aranerrekan.

943 76 28 07.

Garaje bikoitza Torrekoan. 943 76 30 32.

Aranerreka. 943 76 46 54.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 16 38.

### Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 943 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. 943 76 70 63.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 943 76 11 89.

A. Fleming. 943 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokon. 943 76 25 67.

Taberna bat salgai edo alokairuan Antzuolan. 943 76 60 16.

## 4. LANA

### Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egingo nituzke. 943 76 00 90.

Neska batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 56 66.

Kliniko laguntzaileak gaisoak eta helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Emakume batek astebukaera eta jaiegunetan zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 50 46.

Neskak orduka lan egingo luke. 939 47 25 84.

Haurrak zainduko nituzke. 943 76 04 34.

Lanak ordenagailuz pasatzen ditut. 943 76 38 71 (Larraitz).

Neska euskaldun batek haurrak zainduko lituzke. 943 76 56 92.

Denda batean, etxeko lanetan edo zaharrak zaintzen lan egingo nuke. 943 75 17 43.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. 943 76 03 76 (Maite).

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

### Eskaerak

Neska euskalduna be-


ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
AROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK
Urteaga 20 ☎ 943 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Bergara u Pair
IRLANDA, ESKOZIA, INGALATERRA, FRANTZIA, ESTATU BATUAK.
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI, ETA BESTE MILA LANPOSTU.
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 06

SUBIJANA
Gazteentzako moda
Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

AGOITZ
Tapizdenda
Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

har da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 04 56.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 943 76 31 11.

Pertsona euskalduna behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 24 33.

Astebukaeretarako esperientziadun tabernaria behar da. 943 76 39 53.

Etxez etxe errepartoak egiteko ibilgailua duen pertsona behar da. 943 76 11 12.

## 5. IRAKASKUNTZA

### Eskaintzak

OHO klaseak. Antzuola. 943 78 71 32.

Ingeles klaseak. 943 76 53 88 (Rosa).

OHO eta ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak. 943 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasle batek OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate klaseak. 943 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

### Eskaerak

Alemaniazko klase partikularrak hartuko nituzke. 943 76 28 33 (Iker).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 943 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

2. REMeko ikasleak Historiako klaseak hartuko lituzke. 943 76 41 99.

## 6. AUTOAK/MOTOAK

### Saldu

Golf TDI kotxea salgai. 943 76 64 70 (Mikel).

Citroen BX kotxea salgai. SS-U. 943 76 58 00.

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

T.E.C. King karabana. 4 plaza. 943 74 31 37.

BMW K75 S motorra salgai (SS-AK). 943 76 28 88.

Peugeot 309 SR. 100.000 Km. 943 76 14 64.

Seat Ibiza (BI-BF), diesela. 943 76 09 12.

Opel Kadett (SS-AC) salgai. 943 76 16 31.

Golf GTI (SS-AH). 16 balbula. 943 76 33 26.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

### Erosi

Errepideko motorra (49 cc.) erosiko nuke. 943 76 39 19 (Aritz).

## 7. ANIMALIAK

### Saldu

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Setter txakurkumeak. 943 76 53 92 (Javi).

Pit-bull txakurkumeak salgai. 943 79 37 17.

## 8. DENETARIK

### Saldu

Avid bozgoragailuak salgai. 943 76 76 90.

Logela salgai: bi ohe txiki, mueble eta guzti. 943 76 57 05.

Super Nintendo kontsola salgai. 943 76 05 81.

Motorrean ibiltzeko emakumezkoaren gore-tex BMW traje berria salgai. 943 76 09 17.

Mendiko bizikleta salgai. 943 76 49 39.

Idazmakina elektrikoa salgai. 943 76 10 63.

Kanpin denda familiarra salgai. 943 76 37 96.

Kitarra elektrikoa eta anplifikadorea salgai. 943 76 34 31.

Bizikleta estatikoa salgai. 943 76 07 88.

Sherpa Orbea bizikleta salgai. 943 76 52 76.

### Erosi

2. eskuko butanozko estufa katalitikoa erosiko nuke. 943 76 46 90.

Akordeoi bat erosiko nuke. 943 76 57 03.

### Galdu

Urrezko pultsera galdu dut. 943 76 26 79.


**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

***GERENTE-PROMOTOREA***
Deba Behea. 8517/2

***KALKULOKO IRAKASLEA***
Ermua. 8834/1

***TORNO-FRESAKO IRAKASLEA***
Tolosa. 8609/3

***ASEGURU AGENTEA***
Donostia. 8563/1

***GIZA-BALIABIDE TEKNIKARIA***
Donostia. 8518/3

***AUTOMATA ETA NEUMATIKAKO IRAKASLEA***
Gasteiz. 8335/5

***AUTOEN MEKANIKARIA***
Gasteiz. 8594/3

***ARKITEKTOA***
Urola Kosta. 8128/1

***MAKINAKO 2 LANGILE***
Urola. 8814/0

***2 GALDARAGILE-SOLDATZAILE***
8835/0

***AUTOEN MEKANIKARIA***
Bidasoa Behea. 8843/2

***60 LANGILE KONTSERBA LANTEGIRAKO***
Ondarru. 8771/1

***EHUNGINTZARAKO KOMERTZIALA***
Bilbo. 8759/1

***ILEAPAINTZAILEA, emakumea***
Bilbol. 8701/3

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



# Herriak hurbilduz

*UDAKO BRIGADAK*

*Mexiko, Guatemala, Nikaragua eta Kuba.*

**AURKEZPEN HITZALDIA**

**Martitzena, maiatzak 26, 19:30etan Bergarako Kultur Etxean.**

**Hizlariak: K.I.ko partaideak**

**BESTELAKO INFORMAZIOA (20:00etatik 22:00etara):**

**BERGARA:** 943 762 148
**BILBO:** martitzen eta eguakitzetan. 944 790 703
**DONOSTIA:** eguakitzetan. 943 340 404
**GASTEIZ:** martitzen eta eguenetan. 945 281 193
**IRUÑEA:** martitzen eta eguenetan. 948 211 173



**elkartasuna haunditūz**

KOMITE INTERNAZIONALISTAK

# Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 15 urte

## "Ametsa eraikiz doa" lemapean hainbat ekitaldi asteburuan Arrasaten

**Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) euskara elkartearen 15. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi iragarri dira astebukaerarako. Zapatu gauean eta domekan, egun guztian zehar, era askotako jarduerak izango dira Arrasaten.**

15 urte dira Arrasate euskalduntzeko eta euskararen erabilera areagotzeko AED elkartea sortu zutela. Euskal Herri osoan eredu bilakatu den elkarte aintzindaria, haunditzen joan da 15 urte hauetan eta gaur egun, hainbat talde biltzen ditu: Arrasate Komunikabideak (Arrasate Press eta Arrasate Telebista), Euskalan, Txatxilipurdi eta Ekin Emakume Taldea.

**Amets gaua eta eguna**

"Ametsa Eraikiaz Doa" izenburupean ospatuko dute AEDkoek 15. urteurrena. Eguakitz gauean sei euskal laburmetrai ikusteko aukera izango da Amaia antzokian. Zapatu gauean, berriz, "Amets gaua" ospatuko dute Monterronen. Ambient, junggle, House, Techno edota Dub musika motak pintxatzen arituko dira Arraste eta Imanol Dj-ak eta Naun, 2Kate eta Ekon taldeek kontzertua eskainiko dute. Horretaz gain, Bartzelonako Impaktes Visuals-en proiekzioa ere izango da.

Domekan, ostera, "Amets eguna" izango da egun guztian zehar. Herriko hainbat tokitan lau gune egokitu dira eta toki bakoitzean era askotako ekitaldiak izango dira. Zaldibar gunean, este baterako, kale animazioa eta dantzak izango dira goizean zehar eta 14:30etan herri bazkaria. Arratsalderako, berriz, Etzakit taldearen emanaldia iragarri da 18:00etan.

Jokin Zaitegi barruko gunean, bestalde, Iparraldeko herri kirolen ikuskizuna izango da 5etatik aurrera eta, ondoren, saltsa, merenge, tango eta bals ikastaroa. Jokin Zaitegi kanpoko gunean, berriz, haurren jolas parkea jarriko da eta goizean hasi eta egun guztian zehar, kars-ak, zezen mekanikoa, pilotadun etxetxoa e.a. izango dira.

Azkenik, Biteri gunean, 13:30etan, Trikimalu Express taldearen haur berbena; 17:00etan Nomen taldea eta 19:30etan Lorelei taldearen emanaldia izango dira. B

## Asier Altunaren "Txotx" laburmetraia saritu du Euskal Filmategiak

**Asier Altuna**k laburmetrairik onenaren saria jaso berri du "Txotx" pelikularengatik, Euskal Filmategiaren eskutik. Euskal Filmategiak 20. urteurrena bete zuen maiatzaren lehenean. Urteurrena ospatzeko bost bazkide sortzaileak omendu eta Asier Altunak eta Telmo Esnalek idatzi eta zuzendutako *Txotx* laburmetraia saritu zuen. Altunak eta Esnalek 500.000 pezeta jaso dute lan honengatik. *Txotx*ek Bilboko Laburmetraien jaialdian Euskal Zinearen saria jaso zuen eta Donostiako Fantastiko eta Beldurrezko zine jaialdian bigarren filmerik onena aukeratu zuen publikoak. B

## Bergarari buruzko Internet sareko ipuin mitologikoa aurkeztu da

**Eguaztenean** aurkeztu zen Jubilatuetan, Angelo Cacciolak Interneterako prestatu duen Bergarari buruzko ipuin mitologikoa. 24 web orri dira eta herriko hainbat argazkirekin batera, testua eta musika tartekatzen dira. Aurkezpen ekitaldian, Cacciolarekin batera, Victoriano Gallastegi alkatea eta Koldo Pereira Euskara eta Hezkuntza zinegotzia izan ziren. Pereirak jubilatuak Internet sarea erabiltzera animatu zituen eta munduan zehar sakabanatuta dauden familiartekoekin harremanetan jartzeko Internetek eskaintzen dituen aukerak azpimarratu zituen. B

KONDE
PANADEROKUA

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

erakusketa

# Argizaiola argazki Saria

## Lehiaketara aurkeztako lanak ikusgai Pol-Polen

**Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak urtero antolatzen duen Argizaiola argazki lehiaketara aurten aurkeztutako lan onenak ikus daitezke martitzenera arte Pol-Poleko erakusketa aretoan.**

Guztira 30 argazki dira, zuri-beltzekoak eta koloretakoak eta teknika ezberdinak erabiliz egindakoak. Gaiari dagokionez, era guztietakoak aurki daitezke: eretratoak, paisaiak, kiroletakoak...



Erakusketan ikus daitekeen Juan Armentiaren lanetako bat.

Argizaiola argazki lehiaketan Euskal Herri osoko argazkilari taldeetako zaleek hartzen dute parte, baita Bergarako Pol-Pol Argazki Taldeko hainbat kidek ere.

Herriz herri dabilen erakusketarako aukeratutako 30 argazkien artean, Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxagaren 13 argazki daude; 7 Canterorenak eta 6 Gurrutxagarenak. Gainera, Benito Canterok epai-mahaiak banatzen dituen hiru akzesitetako bat (diploma) jaso du.

Argizaiola saria Barakaldoko Alejandro Garaik (argizaiola) eraman du aurten eta beste bi akzesitak, berriz, Javier de la Flor eta Juan Armentia bilbotarrek.

Argizaiola Saria, Euskal Herriko lehiaketen arteko esaguratsuena izan zen garai batean, baina lehiaketak gainbehera hastean etenaldi bat egin beharra ikusi zen, 1995ean indar berritua bueltatzeko.

Erakusketa Bilbon eta Donostian izan da ikusgai eta Bergaratik Errenteriara, Gasteizera edota Legazpira joango da.

Guztira dozena bat herritan erakutsiko da. Estatuko eta atzerriko hainbat aretotan ere erakutsiko da. Bergaran, martitzenera arte izango da zabalik erakusketa, arratsaldeko 7etatik gaueko 9ak arte. B

erreseinak



Felipe Juaristi
***Eguzkiaren etxea***
Ipuina

Felipe Juaristi ezagunagoa da olerkari gisa, baina azkenaldian ume eta gaztetxoentzako prosazko lanak idazten ere badiahardu. Behin alabatxoak galdetu ei zion ea eguzkiak non egiten zuen lo eta "bere etxean" erantzun zionean, alabak galdetu zion ea non zegoen etxe hori; galdera horiei erantzuten hastea baino errezagoa iruditu zitzaion ipuin bat idaztea eta horrela sortu zen "Eguzkiaren etxea" izeneko ipuina. Prosa poetikoa darabil autoreak eta errealitate eta fantasiaren arteko lehian mugitzen da istorioa etengabe. Antton Olariagaren ilustrazio eta guzti.

*- Alberdania. 57 orr. 1.200 PTA*



Sasoi ilunak
***Harakina***
Pop-rock

Hamarkada hasieran bi disko kaleratu ondoren, bost urteko isialdia apurtu du Ortuellako Sasoi Ilunak taldeak "Harakina" izeneko CD honetik. Txuma Murugarren taldeko liderrak adierazi duenez, disko gordina da, mezuan eta doinuan. Gitarrek, batzuetan zorrotzagoak eta besteetan lehunagoak eta Txumaren ahots latzak berezi egiten dute ohiko pop-rockaren ildotik murgiltzen den taldea. Pena bada ere, horrelako talde batek toki txikia dauka Euskal Herriko musika panoraman.

*- Oihuka. 2.300 PTA*


KAZOLATXOAK, PINTXOAK, BOKADILOAK ETA AFARIAK DIRA GURE BEREZITASUNAK.

PISZINETAKO TABERNA

ASTEBURUETAN BAZKARIAK ETA AFARIAK!

BERGARA TF. 76 53 55

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1. Soluzio, soluziobide. 2. Epaitzen dutenak. Boroa. 3. Pagotxa. Nafarroako herrixka. 4. Erbioa. Bihurriak. 5. Toka, nuen. Infusio mota. Bat. 6. Tona. Urtaro beroa. Kontsonantea. Azkenekoa. 7. Sakonera. 8. Bizkaieraz, ile. Ekialdeko borroka mota. 9. Aitzin, aurrealde. Sanferminetako martxa ezaguna. 10. Potasioa. Hondakina. Kontsonantea.

### Goitik behera

1. Adoretsuak, gartsuak. 2. Erregalia. Sexu eme. 3. Nauka. Egokiena, parada, beta. 4. Pikuak ematen dituen arbola. Hizki grekoa. 5. Burdinolak. Zital, odolzale. 6. Neoia. Interjekzioa. Herri hizkeran, eta. Röntgen. 7. Irrigarri. 8. Izua, beldurra. Putrea. 9. Bostheun. Musika nota. Tentea. 10. Ebakidura. Naizen honek.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

*1. Konponbide. 2. Epaileak. B. 3. Mauka. Rala. 4. Er. Okerrak. 5. Nan. Tea. I. 6. T. Uda. G. Z. 7. Sakontasun. 8. Ule. Karate. 9. Aurre. Riau. 10. K. Aurria. K.*

*Goitik behera*

*1. Kementsuak. 2. Opari. Alu. 3. Nau. Aukera. 4. Pikondo. Ru. 5. Olak. Anker. 6. Ne. Et!. Ta. R. 7. Barregarri. 8. Ikara. Saia. 9. D. La. Zuta. 10. Ebaki. Neuk.*

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

### *Zein da ermita honen izena?*

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein konpainiarekin arituko da Virginia Imaz hurrengo hilabeteetan?
A- Holiday zirkoarekin
B- El Circo del Arte-rekin
C- Cirque du Soleil-ekin

2. Nork egin du Pazkuetako txekorketa iragartzen duen kartela?
A- Juan Jose Altunak
B- Bixente Altunak
C- David Callejak

3. Zein talderen aurka eskuratu du Bergarak erregionaleko futbol txapelketa?
A- Mutriku
B- Baskonia
C- Anaitasuna

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Sirimiri** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **M. Isabel Egibar**rentzat izan da: Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Maria Isabeli! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Eladio Urdangarin**. Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-C**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: 2: 3:

Izena-deitura: Telefonoa:

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**SIRIMIRI**
**JATETXEA**
**Barrenkalea 3**
**Tf. 943 76 59 19**

**Felix Barrocal 30 urteko bergararra Garbileko langilea dugu azken 5 urteotan; herriko auzo eta bazter guztietan topa dezakegu lanean goizean goizetik. Barizela jasan berri du eta astelehenean lanari ekin zion berriz.**

# Felix Barrocal



**Lanerako sasoirik onena?**
Udaberria eta uda.
**Eta txarrena?**
Negua eta udazkena, hostoengatik.
**Lanean zenbat kilometro egiten duzu oinez?**
Hiru bat egunero.
**Herriko zein txokotan gustorago?**
Kultur Etxe aldean.
**Puntuatu Bergarako garbitasuna.**
Otik 10era 8 emango nioke.
**Zein ordutan jeikitzen zara?**
Bostak eta laurdenetan.
**Eta oheratu?**
Hamaiketan, lo gutxi egiten dut.
**Etxeko lanetan laguntzen duzu?**
Bai.
**Etxeko lanik gorrotagarriena?**
Plantxa egitea.
**Sukaldari ona zara?**
Defenditzen naiz.
**Gustoko janari bat?**
Pasta, makarroiak.
**Hobby bat?**
Kirola egitea; pala, futbitoa eta bizikleta.
**Bizikletan nora joatea gustatzen zaizu?**
Soraluze aldera askotan joaten naiz, trenbidetik.
**Zure bertute bat?**
Langilea naizela.
**Eta defektu bat?**
Irakurketa ez zaidala batere gustatzen.
**Egindako azken oparia?**
Ezkontza-eraztuna andregaiari; datorren urteko ekainean ezkonduko gara.
**Jasotako azkena?**
Berak oparitutako erlojua.
**Filme bat?**
"Ghost".
**Aktoresa bat?**
Demi Moore.
**Zerekin egiten duzu barre?**
Gauza askorekin.
**Eta negar?**
Malkoak nekez ateratzen zaizkit.
**Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?**
Hasieratik hasten naiz baina segituan jotzen dut kiroletara.
**Athleticen 2. postuari zer deritzozu?**
Ondo dagoela, poztu egin nintzen.
**Kinielarik egiten duzu?**
Bai, astero.
**100 milioi irabaziz gero, zer egingo zenuke?**
Desagertu!!
**Nora egingo zenuke bidaia bat?**
Karibera.
**Zer egingo duzu Pazkuetan?**
Lan egin.
**Pazkuetako gauzarik onena?**
Egoten den giroa. B


POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78



LEGO WATCH SYSTEM
Orain zeure eskura Etxeberrian.
Bidekurutzeta 16 BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 943 76 12 65.
ETXEBERRIA erlojutegia

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00



BOLINTXO
ZURRADERO
Adi! Adi! Adi!
Saloura bidaia bat zozketatuko dugu 98-6-30ean:
Astebetekoa -
2 lagunendako -
3*** hotela - Pentsio osoa -
Port Aventurarako 2 sarrera.
Zurradero 2, behea.Tf. 943 76 01 26



# *Miss Bergara, 1970 inguruan*

Gaur egun Mister-ak ere aukeratzen dira, baina garai batean Miss kontuak bakarrik izaten ziren. Bergaran ere egin ziren horrelako lehiaketak eta aste honetako argazki zaharrean orain dela ia hogeita hamar urte egindakoaren erakusgarria dakargu, 1970 urte ingurukoa.

Miss lehiaketa San Martin jaietan antolatu zen Udal Pilotalekuan eta herriko elkarteek antolatu zuten. 16-17 urteko neskak aurkeztu ziren lehiaketara. Urte hartako Bergarako missa Pili Kortazar izan zen, lehenengo dama Lierni Linazisoro eta bigarrena Izaskun Etxaniz. 15 h neska aurkeztu ziren lehiaketara.

Hona hemen, argazkian agertzen direnen izenak ezkerretik hasita:

Itziar Gabilondo, Iñaki Otaño, Maria Jose Agirre, Izaskun Etxaniz, Pili Kortazar eta Lierni Linazisoro.

*Argazkia: Marcial Moreno*

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

*Deco-Textil*
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
**Herrilagunak 3-5**
**☎ 943 76 08 69**

Zumelaga
JATETXEA
**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!**
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

Gidari onenek

OHOREZKO·MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREra

Azkartu  itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren asegurua aldatzea ez zaizu ezer kostako.
Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).
Lor ezazu bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.

MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, BERGARA. Tf. 76 18 80.

MARKIEGI autoak




Autoen konponketa orokorra
Txapa eta pintura
Mekanika
Bankada unibertsala
Pintaketa labe-kabina
IAT-rako prestaketa linea
Direkzio alineazioa
Neumatiko zerbitzua

eta
BIGARREN ESKUKO
AUTOAK

Leizeaga 1 (San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa) *Telefonoa: 76 35 09*

# JAKINA

**FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakar**




JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 76 03 30. Faxa: 76 02 91.

AENOR Produktu ziurtifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR
Sukaldeko altzariak